Produktu kimikoek dituzten arriskuak prebenitzeko prozesuan eta lanerako prozeduren eta metodoen inguruko arriskuak prebenitzeko prozesuan, garrantzitsua da fase desberdinetan azaltzen diren alderdi guztiak, programatu diren jardueretan modu integratuan lantzea, nahiz eta fase bakoitzean alderdi horiek aztertu.

1. etapa honetan burutzen diren irakatsi eta ikasteko jarduerak, lehen aipatu diren edukien bereizketa, sailkapena eta ebaluazioaren inguruan egitura daitezke, hartara laborategiko lanaren ondorioz izan daitezkeen arriskuak ahalik eta modu eraginkorrean prebenitzeko.

#### **IBILBIDE DIDAKTIKOAREN BIGARREN ETAPAN, "Segurtasunaren Kudeaketa"**

Hain zuzen, aurrekoaren antzeko planteamendua egitea gomendatzen da, eta bi fase proposatzen dira:

- Lehenengo fasean, "Segurtasuna Kudeatzeko Sistemak", hain zuzen, segurtasun-politika definitzen da, baita aipatu politika garatu ahal izateko antolamendu-egiturak, erantzukizunak, praktikak, prozedurak, prozesuak eta baliabideak ere, eta alderdi horiek guztiak instalazioak, ekipoiak, langileak eta ingurugiroaren barruan bilduko dira.
- Bigarren faseak, "Ingurugiro Segurtasuna: Poluziorik gabeko azterketa" plan orokorra zehazten du, besteak beste: helburuak eta ingurugiro-xedeak, laborategian bertan ekin-tza desberdinen plangintza eginez, ingurugiroaren gaineko errespetua eta hobekuntza lortzera zuzentzen direnak.

Fase bakoitzean, hasieran hurbilketa bakuna egingo da, eta bertan ikasleentzat ezagunak izan daitezkeen adibideak jartzea komenigarria izango litzateke, hartara informazio berria hobeto bereganatzeko.

Modu berean, profesionala bereziki bereizten duten jarrera eta portaerekin erlazionatutako edukiak, bereziki lanaren antolamenduari eta laneko garbitasunari dagozkionak, baita osasunarekiko eta ingurugiroaren gaineko errespetuari dagozkionak ere, unitate didaktiko guztietan, eta unitate didaktikoa osatzen duten jarduera guztietan landuko dira.

#### **JARRAIBIDE METODOLOGIKOAK**

- Oro har, irakatsi eta ikasteko jarduerak eta ebaluazio-jarduerak zehazteko, unitate didaktikoa osatzen dutenak, jarduerak prozedurazko ardatz baten inguruan egituratu behar dira. Ondorioz, kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak unitatean bilduko dira, bertan jasotzen



diren prozedurak burutzeko beharrezkoak direnean. Horretarako, ahal den neurrian, kasu praktikoak edo hipotesi bakunak proposatuko dira, hartara ikasleek jakintza bezala igorri nahi den informazioaren beharra ikus dezaten.

- Hipotesiek ikasleek gero eta konplexutasun eta autonomia handiagoa bereganatzea eskatzen duten neurrian, behar diren kontzeptuzko edukiak (gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak) eta jarrerazko edukiak zabalduko eta integratuko dira.
- Kontzeptuzko egitura duen jarduerarik ezarri gero, ulertzeko errazenak direnetik hasi eta zailenetan amaitzea gomendatzen da, ahal den neurrian, horretarako ikasleei parte hartzeko aukera eskaintzen dieten metodoak erabiliz. Hau da, azalpen-metodo gehiegi ez erabiltzea gomendatzen da, ikaslearen pasibotasuna saihestuz.
- Komenigarria izango litzateke unitate didaktikoaren aurkezpena egitea, nagusiki ikasleak motibatzea helburu izanik. Oinarritzat egoera jakin bat hartzea gomendagarria da, eta eztabaida txiki bat antolatzen saiatzea. Horrela, ikasleen jakinmina eta motibazioa pizteaz gain, ikasleek gaiaren inguruan dituzten aurretiko ezagupenak zeintzuk diren jakingo dugu, eta edukiak ezagupen horietara egokitu.
- Irakatsi eta ikasteko prozesuetan, izenburuan aipatzen diren ingurugiroaren gaineko eta lanbide-jardueretik egokitzapena funtsezkoa da. Zehazkiago, hipotesien datuak eta ezaugarriak, garatu beharreko prozesuak, erabiliko den dokumentu-kopuru handiena, irudikatutako egoerak, eta abar, horiek guztiek ikasleentzako adierazgarriak izan behar dute eta nolabait "ezagunak" direla somatu behar dute, beraz, azalduko diren "hipotesiak" ikastetxearen inguruntik atera edota ikastetxearen ingurunera egokituko dira, ikaslea seguraski integratuko deneko lan-mundua barne.
- Logikoa da irakasleek azalpen-metodologiak erabiliko dituztela onartzea. Hala ere, gehiegi ez erabiltzea gomendatzen da, hartara ikaslearen pasibotasuna saihestuz.
- Ahal den neurrian, edukiak ez "diktatzea" eta dokumentuen bidez ematea gomendatzen da.
- Arrazoizkoa da, irakasleak, hasiera batean, ikaskuntza-egoera eratuko duten prozedurak gauzatzeko orduan eskuhartzea, helburutzat ikasleek ondoren egin beharko duten lanerako eredu orientatzaile bat sortzeko, nork bere kasara lan egitea ahalbidetuko duena.
- Formulatzeko diren hipotesi praktikoek, ahal den neurrian, egoera eta analisi errealak isladatu behar dituzte.
- Ikastetxeak berez dituen sistemak erabiliz (instalazio orokorrak, laborategia, tresnak, informatika-sistemak, ...), jarduerak garatzeko baldintza egokiak lortzen dira.

Jardueren prozedurazko garapenari dagokionez, interesgarria eta gomendagarria izango litzateke, poluitzaileak neurtzeko lanabes edo ekipo bat edukitzea, laborategietako ohiko materialaz gain. Aipatu ekipoak erabiltzeko orduan, ikasleek "Laborategiko Praktika Egokiei" (LPE) buruzko araudia bete behar dutela azpimarratu behar da.

## EBALUAZIOA

Lehenengo jarduera bezala, hasierako ebaluazioa egingo dugu; honi esker taldearen ezaugarriak, interesak eta beharrak zeintzuk diren jakingo dugu, eta hasierako ebaluazioaren emaitzen arabera, gainontzeko jardueren garapena egokitu ahal izango dugu.

Ikaskuntza-jardueretan bildutako kasu praktikoen ebazpena eta proiektuak egitea izan daiteke ebaluazioa egiteko lanabes egokia. Horrela, ikasleak, eta oro har, taldeak lortu duen aurrerapena ikusteaz gain, taldeko eskasiak ere somatu ahal izango dira, eta hartu beharreko neurriak hartuko dira. Bi kasuetan, lortzen diren informazioa eta emaitzak kontuan hartuko dira ebalua-

zio-prozesuan. Begibistakoa da, zenbait unetan banakako probak edo betiko azterketak egin beharko direla.

Modulua amaitzerakoan banakako probarik egingo dela erabakiz gero, proba horren bitartez ikasleek ingurugiroa errespetatuz laborategiko teknikak menperatzeari dagokionez bereganatu duten lorpen-maila ezagutu ahal izango dugu.

## 4. UNITATE DIDAKTIKOA: POLUZIORIK GABEKO AZTERKETA

### 4.1. Berariazko helburuak

Unitate didaktiko hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Analisi- edota kontrol-laborategi baten jardueratik ondorioztatzen diren ingurugiro-alderdiak bereiztea, ebaluatzea eta erregistratzea.
- Ingurugiroa babesteko norik bere ekintzak eta taldeko ekintzak proposatzea.
- “Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokiak” azalduko dituen kode bat diseinatzea, eta IKS bat hartzeko, horren arabera jardutea.
- Talde mistoak sortzea eta garatzen sustatzea, **Garapen Jasangarria** lortzen lagunduko duten irizpide eta metodologia bateratuak ezartzeko.

Helburu hauen gaitasun implizituak eskuratzeko, ondoko atalean deskribatuko diren edukietan oinarritzen diren eta ikasleentzako adierazgarriak diren zenbait jardueretan oinarrituko gara. Modu honetara, eduki horiekin lotutako jarduerak bata bestearen atzetik joango dira.

## 4.2. Edukiak

## PROZEDURAZKOAK

- Prozesu kimiko analitiko poluitzaileen analisia.
- Analisi- edota kontrol-laboregi baten ingurugiro-alderdiak bereiztea.
- Produktu kimikoak eta biologikoak, motaren, konposizioaren eta organismoaren eta ingurugiroan izan ditzaketen eraginen arabera sailkatzea.
- Minimizazio- eta ezabaketa-teknikak ezartzea.
- "Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokiak" azaltzen dituen kode bat lantzea eta ezartzea.
- Laborategiko ingurugiro-alderdiak bereizteko, ebaluatze eta erregistratzeko, prozedura normalizatuak erabiltzea.
- Produktuak manipulatzeko eta biltegitratzeko araudiak ezartzea.
- Ingurugiro-kudeaketan eskumena duten erakundeek erabiltzen duten dokumentazioa erabiltzea.
- Sortutako hondakinen ekonomia-kudeaketaren ebaluazioa egitea.
- Izan daitezkeen arriskuak eta jarduteko proposamenak baloratzea.
- Sortzen diren hondakinen tratamendua, biltegitratzea edota uztea kudeatzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.


## KONTZEPTUZKOAK

- Oinarrizko kontzeptuak definitzea: **Garapen jasangarria**, poluzioa, ingurugiro-eragina, kudeaketa eta kudeaketaren terminologia. Balorazioa eta ezabaketa.
- Ingurugiro-politika. IKS.
- Lanerako prozedura normalizatuak (LPN).
- LPE eta IPE.
- Produktu kimikoak eta biologikoak: motak, mailak eta ezaugarriak.
- Ingurugiro-mailako arriskuen aurrean segurtasun-araudia (akta europarra, 130. art.).
- Produktu kimikoen ontziratzea, etiketatua, manipulazioa, biltegitratzea eta garraiorako araudia.
- Minimizazio-teknikak.
- Laborategian eragina izan dezaketen XXI Agenda eta ingurugiro-mailako Printzipioak aurkeztea.

## JARRERAZKOAK

- "Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokiak" kodeko prozedurekiko errespetua eta kodea betetzea.
- Talde-lanarekiko atsegina.
- Ingurugiroaren gaineko interesa.
- Babes eraginkorra lortzeko ingurugiro-mailako alderdiei buruzko komunikazioa eta igorpena baloratzea.
- "Teknologia garbiak", beste batzuen parean, erabiltzen direlax ohartzea.
- Erabakiak hartzeko autonomia eta erantzukizuna.
- Ingurugiroaren defentsa, toki-mailan zein orokorrean.
- Ingurugiroa defendatzeko ekintza pertsonalak eta taldeko ekintzak egiteko beharra baloratzea.
- Natur baliabideen gainustipena eragiten duten produktu jakin batzuk modu orekatsuan erabili behar direlax ohartzea.
- IPEaren kodeari jarraiki jardun behar delax ohartzea.
- Jarduera orotan, sistematikoki lan egitea, txukun eta garbi.
- Parte-hartze aktiboa.
- Erabiltzen diren prozeduren eta ingurugiro-politikaren artean dagoen koherentzia-maila baloratzea.





## 4.3. Jarduerak

ORDUAK (16)	IRAKATSI ETA IKASTEKO JARDUERAK	OHAR DIDAKTIKO-METODOLOGIKOAK	EBALUAZIO-JARDUERAK
<b>1. zatia</b> ½ or.  3½ or.	<b>1.- Hasierako Ebaluazioa</b> Aurkezpena eta Aurrekontzeptuak.  <b>2.-Laborategien azterketa, ingurugiro-mailako segurtasun-irizpideen arabera.</b> – Instalazioak, ekipoak, kontsumoak, arriskuak eta ingurugiro-alderdiak. – Prebentziorako ekintzak eta ekintza-zuzentzaileak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide-profiletik abiatuta, motibazioa.</li> <li>• Kalitatea eta Ingurugiroa Kudeatzeko lanabesak erabiltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleak erantzundako galdeketa.</li> <li>• Laborategiaren hastapenetako ingurugiro-mailako baldintzei buruzko idatzizko txostena.</li> </ul>
<b>2. zatia</b> 3 or.  3 or.  3 or.	<b>3.- Materialen eta errektiboan biltegiraketa eta manipulazioa.</b> – Sailkapena, etiketatua, manipulazioa eta biltegiraketa.  <b>4.- Hondakinak laborategian bertan tratatu ahal ditugu?</b> – Balorazio- eta ezabapen-tratamendua, erabilera normalizatua.  <b>5.- Zer gertatzen da gure inguruneke laborategietako hondakinekin?</b> – Bereizketa eta sailkapena, bilketa, XXI Agenda.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bateriaezintasunak kontuan hartzea.</li> <li>• Segurtasun-fitxak lantzea.</li> <li>• Minimizazio-teknikak ezartzea.</li> <li>• Hondakinei buruzko legeria eta ingurugiro-kudeaketari buruzko araudia erabiltzea (ISO 14000).</li> <li>• Lege- eta arau-erreferentziak erabiltzea.</li> <li>• Jendaurreko azalpena, kanpoko teknikariek parte hartzen dutelarik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Piktogramak aztertzea.</li> <li>• Segurtasun Fitxak interpretatzea.</li> <li>• Hipotesi praktikoa bat ebaztea.</li> <li>• Ikasleak landutako prozedura normalizatua.</li> <li>• Hondakinei buruzko fitxak lantzea.</li> <li>• Ikasleak landutako prozedura normalizatua.</li> <li>• Jendaurreko azalpenaren parte-hartze positiboa.</li> </ul>
<b>3. zatia</b> 1½ or.	<b>6.- Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokien Kodea</b> – Diseinua, hornikuntza, inbentarioen kontrola, biltegiraketa, manipulazioa, analitika, prebentziozko mantentzea, hondakinak bereiztea eta garbiketa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurreko jardueretan egingako saiakuntzak eta gogoretak erabiltzea.</li> <li>• Landutako kodeen inguruko eztabaida.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokiak azaltzen dituen Kode bat lantzea.</li> <li>• Jendaurreko azalpenaren parte-hartze positiboa.</li> </ul>
<b>4. zatia</b> 1½ or.	<b>7.- Nola lagundu garapen jasangarria lortzeko?</b> – EBeko ingurugiro-estrategiak, XXI Agenda.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurugiroa babesteko eta Garapen Jasangarria sustatzeko lagungarriak izango diren ekintza pertsonalak eta taldekoak sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleak landutako prozedura normalizatua.</li> <li>• Egoera errealean aurrean, norberak eta taldeak jarra arduratsuak eta elkartzunezkoak garatzea.</li> </ul>

Dokumentazio Teknikoa.

Legeria europarra, nazionala eta autonomikoa.

INSHT arauak, ISO 14000 Araua.

Laborategi kimikoetako hondakinen kudeaketari buruzko bideoak.

Sektore honetako profesionaleri eta ingurugiro-kudeaketako adituei kontsulta.

Laborategiko materiala eta tresnak.

Dokumentu normalizatuak. Ingurugiro-politika eta -prozedurak.

INTERNETeko helbideak.

## BALIABIDE DIDAKTIKOAK





## 5. JARDUEREN DESKRIBAPENA

### JARDUEREN ANTOLAMENDUA

ZK.	IZENA	DENBORA
1	U Dren aurkezpena eta hasierako ebaluazioa.	1/2
2	Laborategien azterketa, ingurugiro-mailako segurtasun-irizpideen arabera.	3 1/2
3	Materialen eta erreaktiboen biltegiaketa eta manipulazioa.	3
4	Hondakinak laborategian bertan tratatu ahal ditugu?	3
5	Zer gertatzen da gure inguruneko laborategietako hondakinekin?	3
6	Laborategiaren Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokien Kodea lantzea	1 1/2
7	Nola lagundu Garapen Jasangarria lortzeko?	1 1/2

**Guztira: 16 ordu**

Jardueretako bakoitza honako hauek osatzen dituzte:

- Irakasleentzako materiala: garapen metodologikoa, gardenkiak, betetako galdesortak...
- Ikasleentzako materiala: txostenak, galdesortak, fitxak.
- Eranskinak (bidezkoztat jotzen denean).


Gardenki gisa adierazten den materiala orri osoko formatuarekin aurkezten da, irakasleek azetatoetan fotokopiak egin ahal izateko.

Eranskinetan material osagarria barne hartu da jarduera burutu ahal izateko, irakasleen irizpidearen arabera material hau ikasleei entregatuko zaie edo beste moduren batean erabiliko da.

Unitate didaktikoa garatzen duten jarduera-multzoan, produkzio-sektore desberdinei loturik dagoen ingurugiro-problematikaren barruan gaur egun erreferentzia gisa kontuan izan beharreko gai jakin batzuk barne hartzeko ahalegina egin da:

- Garapen jasangarria.
- ISO 14000 arauak.
- IKS (Ingurugiroa Kudeatzeko Sistema).
- Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokiak (IPE).
- Ingurugiroarekin erlazionatutako produkzio-sektorearen legeria.

Edukien mapa





# 1. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
UDren aurkezpena. eta hasierako Ebaluazioa	Gela-laborategia	½ ordu

## LANERAKO HELBURUAK

- UD Segurtasuna eta Ingurune Kimikoa testuinguruan kokatzea.
- Taldeak dituen aurretiko ezagupenak antzematea.
- Ikasleek Ingurunearen aurrean duten jarrera galdetzea.

## BALIABIDEAK

- ♦ Edukien maparen transparentzia.
- ♦ Ikasleentzako galdeketa.
- ♦ Irakasleentzako erantzunak dituen galdeketa.

## METODOLOGIA

1. Irakasleak azalpen labur bat emango du, esparru kimikoa ingurugiroarekin erlazionatuz, eta jarraian azaltzen diren ideiak bilduko ditu:
  - Gaur egungo teknologiei esker gure bizi-kalitatea hobe daiteke, baita bizitza luzatu ere, baina aldi berean, gure planetako orekak aldatzen dira. Gero eta mundu konplexuago eta ahulago batean bizi gara eta egoera horren erantzuleak gu gara.
  - Analista kimikoaren lanbidea dugunok, oso arrikutsuak diren produktuak erabiltzen ditugu, bai guretzako bai ingurugiroarentzako arrikutsuak. Nola lan egin maila praktikoan?
  - Unitate honetan tresna desberdinak erabiltzen ikasiko dugu, ingurugiroa errespetatzen lagunduko digutenak.
2. Ondoren galdeketa banatuko da; banaka erantzungo zaio eta taldean zuzendu, alderdirik esan-guratsuenen inguruko iruzkinak eginez.

## EBALUAZIOA

### JARDUERAK

- Galdeketa bakarka erantzutea eta jarraian taldean zuzentzea.

### EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Ingurugiro-kudeaketari buruzko oinarritzko ezagupenak, batez ere 1. eta 5. moduluekin erlazionatutakoak.
- Kalitatezko tresnak erabiltzea, 1. moduluarekin eta KEHrekin erlazionatutakoak.
- Ingurugiro-mailako arazoekiko interesa.

## ERANTZUNDAKO GALDEKETA

***Zer ulertzen duzu hondakin bezala?***

Apirilaren 21eko 10/1998 Legearen arabera, Hondakinei buruzkoa, hondakina da, 952/1997 EDko 1. eranskinean azaltzen diren edozein kategoriako edonolako substantzia edo objektua, zeinen jabeak utzi edo uzteko asmoa edo betebeharra duen. Edonola izanda ere, hondakintzat joko dugu Europako Hondakin Katalogoan (EHK), Europako Elkarteko Erakundeek onetsi zutena (94/3/EE Erabakia), azaltzen den substantzia edo objektu oro.

42/1975 Legearen arabera, fabrikazio-prozesu, eraldaketa-prozesu, erabilera, ekoizpen-prozesu edo kontsumoa edo garbiketa-prozesu baten ondorioz sortzen den material oro da hondakina, material hori ekoiztu duen lagunak materiala uzteko asmoa duenean.

ELGEn arabera, hondakin solidoen, likidoen eta gasen produktuak dira, ekoizpen- eta kontsumo-jardueretan sortzen direnak, jada balio ekonomikorik ez dutenak, horiek aprobetxatzea ahalbidetuko duen teknologiarik ez izateagatik edo berreskura daitezkeen produktuen merkaturik ez dagoelako.

***Analisirako edota kontrolerako laborategi batean zein hondakin-mota sor daitekeela uste duzu?***

Funtsean bi: hiri-hondakinak edo udal-hondakinak eta hondakin arriskutsuak.

***Zein tratamendu emango zenieke?***

Hondakinen tratamendurako lau multzo zabal daude:

- Fisikoak: autoklabezko esterilizazioa.
- Kimikoak: oxidazioa, erredukzioa, hauspeatzea, neutralizazioa.
- Fisiko-kimikoak: alderantzizko osmosia, distilazioa, elektrodialisia, disolbatzaileen bidezko erauzketa.
- Biologikoak: hartxidura, lohi aktibatuak, bakterio-tratamendua.

Aipatu ditugunez gain, errausketa eta egonkortzea ere erabil daitezke.

***Zer ulertzen duzu Ingurugiroa Kudeatzeko Sistema (IKS) bezala?***

Kudeaketa-sistema orokorraren zatitzat jotzen da, eta bertan biltzen dira, antolamendu-egitura, jardueren plangintza, erantzukizunak, praktika desberdinak, prozedurak, prozesuak eta baliabideak, horiek guztiak, Erakundearen ingurugiro-politika garatzeko, ezartzeko, martxan jartzeko, berrikusteko eta eguneratua edukitzeko.

***Nola definituko zenuke garapen jasagarria?***

Egungo belaunaldiaren beharrak asetzen dituen garapena da, etorkizuneko belaunaldiei izango dituzten beharrak asetzeko aukera agortu gabe.

***Jarraian azaltzen diren produktu kimikoen adibideak jar itzazu:***

- Sukoia: Etanola, Azetona, Toluena.
- Toxikoa: Kloroformoa, Beruna, karbono-tetrakloruroa.
- Korrosiboa: Azido sulfurikoa, sodio-hidroxidoa.
- Ekotoxikoa: Merkurioa.

***Erreaktibo batetik abiatuta prestatu den disoluzio batek zein etiketa eraman beharko luke?***

- Produktuaren izena.



- Prestatu zen eguna.
- Konzentrazioa.
- Arrisku-piktograma.
- Produktua prestatu duen analistaren izena.

***Zein izango litzateke zure jokaera, likido sukoia duen ontzi bat isurtzen bada?***

Lehenik eta behin, pizgailuak eta aparatu elektrikoak itzali; ondoren, likidoaren isurketa gelditzea, ondoren, babes pertsonalerako neurriak hartzea, hala nola, eskularruak, mozorroa eta suitzalgailua; isuri den likidoa paper zurgatzaile batekin jasotzea, eta azkenik paper zurgatzailea erraustea eta isurketa izan den zona ondo garbitzea.

***Defini ezazu “Laborategiko Praktika Egokiak” (LPE). Ingurugiroarekin harremanik al dute? Erantzuna baiezkoa bada, azal ezazu zein harreman ikusten duzun.***

“Laborategiko Praktika Egokiak” (LPE): antolamendurako sistemak dira, eta azterketak antolatzeke, egiteko, kontrolatzeko, erregistratzeko eta aurkezteko baldintzak ezartzen ditu.

Helburua da azterketa jakin bat egin ondoren, bereziki entsegu toxikologikoetan, lortzen diren datu guztien kalitatea eta osotasuna ziurtatzea.

“Laborategiko Praktika Egokien” printzipioak, substantzien eta produktu kimikoen ezaugarri buruzko datuak eta giza osasuna eta ingurugiroa kontuan hartuta duten segurtasunari buruzko datuak lortzeko egiten diren azterketetan ezarriko dira. Horrexegatik hain zuzen dute erlazio handia ingurugiroarekin.


***Laborategiko instalazio eta ekipoen artetik, ingurugiroarentzako arriskutsuak diren hiru aipa itzazu:***

1. Etiketatutako gabeko hondakin organiko bat edukitzea.
2. Bateriaezinak diren produktuak urarekin biltegitratzea, hala nola metal aktibo bat (Sodioa, Potasioa, Zinka, Litioa, eta abar.), erreakzio bortitza izateko arriskua dutenak, hidrogeno sukoia askatuz.
3. Ke-erazgailuak zurgaketa desegokia egitea.

***Honako Kalitate-tresna hau ezagutzen al duzu: Ishikawa Diagrama edo Kausa-efektua?***


Efektu baten kausak sistematikoki bilatzen dituen tresna da.

Nola egin daiteke? (Prozedura)



ADIBIDEA

Efektua: prozesu batean gehiegizko ur-kontsumoa.



Identifikatutako kausa bakoitza beste diagraman "efektu" bat izan daiteke. Horrela, egoerak eskatzen zuen sakotasunean garatu daiteke analisia.

**Azken boladan, ingurugiroarekin erlazionatutako zein albiste irakurri edo entzun duzu?**  
 (Albiste berriak, edo duela gutxikoak prestatzea).



a

## 1. jarduera



<p><b>IZENBURUA</b></p> <p>UDren aurkezpena eta hasierako Ebaluazioa</p>	<p><b>KOKAPENA</b></p> <p>Gela-laborategia</p>	<p><b>KALKULATU DEN DENBORA</b></p> <p>1/2 ordu</p> 
--	--	---

**LANERAKO HELBURUAK**

- ☞ UD, Segurtasuna eta ingurune kimikoa testuinguruan kokatzea.
- ☞ Taldeak aurretik dituen ezagupenak zeintzuk diren jakitea.
- ☞ Ikasleek Ingurugiroaren aurrean duten jarrera zein den aztertzea.

**GALDEKETA**

☺ *Zer da zuretzat hondakina?*

.....

.....

.....

.....

☺ *Analisi- edota -kontrol laborategi batean zein hondakin sor daiteke?*

.....

.....

.....

.....

☺ *Nola tratatuko zenituzke hondakinak?*

.....

.....

.....

☺ *Ingurugiroa Kudeatzeko Sistema (IKS) zer da?*

.....

.....

.....

☺ *Nola definituko zenuke Garapen Jasangarria?*

.....

.....

.....

☺ *Jarraian aipatzen diren produktu kimikoen adibideak eman:*

☺ *Sukoia:* .....

☺ *Toxikoa:* .....

☺ *Korrosiboa:* .....

☺ *Ekotoxikoa:* .....

☺ *Zein datu jarri beharko litzateke, erreaktibo batetik prestatutako disoluzio baten etiketan?*

.....  
 .....  
 .....

☺ *Zer egingo zenuke likido sukoia duen ontzi bat lurzorura erori eta likidoa isurtzean?*

.....  
 .....  
 .....

☺ *Defini ezazu "Laborategiko Praktika Egokiak" (LPE). Ba al du inolako erlaziorik ingurugiroarekin? Erantzuna baiezkoa bada, azaldu erlazioa.*

.....  
 .....  
 .....

☺ *Laborategiko instalazioak eta ekipoak kontuan hartuta, ingurugiroarentzat arriskutsuak izan daitezkeen hiru aipa itzazu.*

.....  
 .....  
 .....

☺ *Ishikawa diagrama edo Kausa-efektua, Kalitate-lanabesa ezagutzen al duzu?*

.....  
 .....  
 .....

☺ *Ingurugiroari buruz zein albiste entzun edo irakurri duzu azken bolada honetan?*

.....  
 .....  
 .....



## 2. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
<i>Laborategiaren azterketa, ingurugiro-segurtasunaren irizpideen arabera</i>	<i>Laborategia eta Etxera</i>	<i>3, 1/2 ordu</i>

### LANERAKO HELBURUAK

- Laborategi batek eta bertan egiten den lanak dituen ingurugiro-alderdiak eta ingurugiroaren gaineko arriskuak bereiztea.  
Aipatu alderdien arrazoiak aztertzea eta baloratzea, somatu diren arriskuei lehentasuna emanez.
- Antzemandako eta aztertutako alderdiak ezabatzen edo minimizatzen dituzten ekintza zuzentzaileak edo prebentiboak ezartzea.
- Egoera hobetzeko ekintzak proposatzea, ingurugiro-segurtasunaren irizpideen arabera.

### BALIABIDEAK

- ◆ Laborategiaren planoak eta instalazioen, aparatuen, produktuen eta erreaktiboaren inbentarioa.
- ◆ Ikuskapenerako prestatutako galdeketa.
- ◆ 1993ko uztailaren 20ko 93/67/EEE Aztertarauak finkatzen ditu Kontseiluaren 67/548/EEE Aztertarauan azaltzen diren substantziek gizakiarentzat eta ingurugiroarentzat dituen arriskuak ebaluatzeko printzipioak.
- ◆ Prebentzioarako ohar teknikoak, INSHT-ren POT-135.
- ◆ Kontsumoen kalkulurako oharak.
- ◆ ISO 14001.

### METODOLOGIA

Laborategia espazio pribilegiatua da, bertan burutzen diren jarduerak ingurugiroan eragiten dituzten arriskuak sistematikoki murriztea ahalbidetzen dutelako. Ikasleek aurretik dituzten ezagupenak aprobetxatu behar dira, bai segurtasun-esparruan bai antolamendu-mailan ere, 5. eta 1. moduluetan, hurrenez hurren, bereganatu dituztenak.

3-4 laguneko talde txikiak antolatzea proposatzen dugu, laborategiak ingurugiroarekiko dituen alderdi kritikoak bereiz ditzaten, bai instalazioei dagokienez bai produktuei dagokienez ere, eta ondoren, ingurugiroaren gaineko arriskuaren irizpideen arabera aztertu eta antolatu behar dituzte.

Jarraian, talde bakoitzak ekintza zuzentzaileak eta prebentziozkoak antolatuko ditu, idatziz jaso dituzten eta lehentasuna duten arriskueta oinarrituta.

Aldi berean, taldeek kontsumoen kalkuluak egingo dituzte. Jarduera ez gehiegi luzatzeko, kontsumoak talde desberdinetan bana daitezke, betiere talde guztiek, gutxienez kontsumo bana aztertu-ko dutela ziurtatuz. Egindako kalkuluak taula batean edo arbelean jar daitezke, hartara talde guztiek kontsumoen datu guztiekin lan egin ahal izateko.

Aipatu guztia analisi-metodo batean ezarriko dute, jada 2. edo 3. moduluetan erabili dena, eta bertan zehaztuko dituzte bai kontsumoak bai aipatu metodoak dituen arriskuak, bai neurri zuzentzai-

leak eta prebentziozkoak ere. Horrela, jarraibide bateratuei jarraiki lan egin behar dela ulertuko dute, eta ondoren burutuko diren jardueretan hori kontuan hartuko dute; azkenik, "Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokien Kodea" landuko dute (6. jarduera).

Ikasle bakoitzak lanerako prozedura bat landuko du, jarraitu den prozesua laburbilduko duena.

Jarduerarekin amaitzeko, kudeaketa kontzeptua azaldu behar da, hartara laborategiaren egoeraren ikuspegi orokorra bereganatzeko. Azalpen erraza emango da, eta alderdirik funtsezkoenak bilduko dira, ondoren ingurugiro-kudeaketan burutuko diren jardueren euskarri bezala erabiltzeko.

Jardueraren etapa sekuentzialak jarraian azaltzen den moduan laburtzen dira:

- Lanerako plana aurkeztea eta taldeak antolatzea; irakaslearen zeregina da.
- Laborategian, ingurugiroaren gaineko alderdi kritikoei buruzko azterketa egitea.
- Ikasleek instalazioen eta ekipoen ikuskapena egitea, oharrak modu egokian idatziz.
- Ingurugiroaren alderdiak eta arriskuak bereiztea, eta horiek baloratzea eta lehentasunaren arabera antolatzea.
- Ingurune hartzailearen arabera, alderdi desberdinak sailkatzea (igorpenak, isurketak, hondakinak).
- Alderdi desberdinen eta arriskuen arrazoiak aztertzea, eta bi kasuetarako neurri zuzentzaileak eta prebentziozkoak proposatzea.
- Zeharkako alderdiak: energia, ura, papera eta errektiboek kontsumoak murriztea, epe jakin batean, kontsumo horiek murrizteko proposamenak aurkeztuz.
- Prozedura normalizatuak egitea, (ISO 14001) honako xede honekin:
  - laborategi bateko ingurugiro-alderdiak eta -arriskuak bereiztea, aztertzea, sailkatzea, baloratzea eta erregistratzea,
  - errektibo kimikoen kontsumoa kontrolatzea.
- Analisi-prozesu jakin batean laborategian sortzen diren substantziak bereiztea, eta substantzia horien arriskua ebaluatzea.
- Aurreko prozesuak eragin ditzakeen arriskuak/istripuak aztertzea, eta errektiboak ordezkatzeko proposamenak egitea, betiere eraginkortasun analitikoak/karga poluitzailea erlazioa hobetuz.
- Banakako txosten bat lantzea non datu desberdinak bilduko diren, hala nola: laborategiaren kokaleku zehatza, ingurugiroarentzako arrisksuak diren alderdi kritikoak, baloratutako kontsumoak, jarduerak eragin ditzakeen istripuak/arazoak, eta analistentzako lanerako ebaluatzeko jarraibideak (ISO 14001 arauari dagokion hasierako ikuskapenaren kontzeptua).
- Jarraitutako prozesu osoaren ebaluazioa.

## EBALUAZIOA

### JARDUERAK

- Egindako ikuskapen-galdeketa.
- Egindako kontsumo-kalkuluak.
- Hipotesi praktikoak ebaztea.
- Laborategian ezar daitezkeen ingurugiro-irizpideen ahozko edota idatzizko azalpena.
- Txostena aurkeztea eta aztertzea.

### EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Agindutako erakusketetan eta lanetan arreta jartzea.
- Dokumentuetatik lortu diren kontzeptu nagusien laburpena.
- Landutako prozeduretan sistematizazioa eta logika.
- Laborategiko kontzeptuak ingurunearen babesarekin erlazionatzeko gaitasuna.
- Txostena osorik lantzea: hedadura, edukia eta aurkezpenari dagokionez zuzena izatea.
- Ikaskideekin komunikazioa izatea, betiere jardueraren ingurukoa.
- Ingurugiroaren inguruko bibliografia eta zentro espezializatuetan kontsultak egitea.

a

## 2. jarduera



<p><b>IZENBURUA</b></p> <p>Laborategiaren ikuskapena, ingurugiro-segurtasunaren irizpideei jarraiki</p>	<p><b>KOKAPENA</b></p> <p>Gela-laborategia</p>	<p><b>KALKULATU DEN DENBORA</b></p> <p>3, 1/2 ordu</p> 
---	--	--

### LANERAKO HELBURUAK

- ☞ Laborategi batek eta bertan burutzen den lanak dituen alderdi desberdinak eta arriskuak identifikatzea. Arrazoiak aztertzea eta aipatu alderdien garrantzia baloratzea, antzeman diren arriskuei lehentasuna emanez.
- ☞ Antzeman diren eta aztertu diren alderdi eta arrisku desberdinak ezabatzeko edo minimizatze-ko ekintza zuzentzaileak eta prebentziozkoak ezartzea.
- ☞ Hobetzeko jarduerak proposatzea, ingurugiro-segurtasunaren irizpideei jarraiki.

### GARAPENA

Jarduera honetan, laborategiak dituen ingurugiroarekiko alderdi kritikoak bereizi behar dira, eta ondoren, alderdi horiek aztertu eta antolatu egin behar dira, ingurugiro-segurtasunaren irizpideei jarraiki; alde zuzentzaileak jendaurrean lortutako datuak jakinaraziko dira. Horretarako, jarraian azaltzen den metodoa jarraitu beharko duzu:

#### 1.) Instalazioek eta ekipoez dituzten ingurugiro-alderdiak eta -arriskuak identifikatzea.

Honekin batera azaltzen den galdeketa erabiliko dugu ingurugiro-alderdiak eta -arriskuak identifikatzeko, eta bertan ondorioztatzen dituzten puntu kritikoak laborategiaren planoan marraztuko dituzu.

Aztertu beharreko atal desberdinak ditugu: bai lokalaren egituraren ingurukoak, bai ekipamendu eta kontsumoei buruzkoak ere; horiek guztiek lotura handia dute aurreko unitateetan aztertu ditugun segurtasun-alderdiekin. Laburbilduz:

- Eraikina eta lokala.
- Aireztapena.
- Argiteria.
- Garbitasuna.
- Larrialdietako botikina.
- Segurtasun-sistemak.
- Elektrizitatea.
- Suteak prebenitzea eta itzaltzea.
- Zarata.
- Botilak eta bonbonak.
- Lanerako arropa.
- Hondakinak.

## INGURUGIRO-ALDERDIAK ETA -ARRISKUAK IDENTIFIKATZEKO GALDEKETA

### LABORATEGIAREN IDENTIFIKAZIOA

Ikastetxearen laborategia: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: .....  
 Zentroaren barruko kokapena: .....  
 Egungo ikuskapenaren data: .....

### LABORATEGIAREN EZAUGARRIAK

Laborategi-mota: ..... Tamaina (m<sup>2</sup>): .....  
 Oinarrizko ekipamendua: .....

IKUSKAPENAREN ALDERDIAK	EMAITZA	
	Zuzena	Okerra
<b>1 ERAIKINA ETA LOKALA</b>		
<input type="checkbox"/> Eraikin segurua eta sendoa, laborategian inolako arriskurik gabe.		
<input type="checkbox"/> Lur laua eta homogeneoa.		
<input type="checkbox"/> Lur ez-irristakorra eta garbitzeko erraza.		
<input type="checkbox"/> Laborategiko paretak: lauak eta kolore argia dutenak.		
<input type="checkbox"/> Korridoreak: gutxienez 1 m zabalean.		
<b>2 ARGITERIA</b>		
<input type="checkbox"/> Argiztapen nahikoa (naturala, artifiziala edo mistoa).		
<input type="checkbox"/> Lurretik 5 m baino gutxiagora ezin da babesarik gabe lanpararik jarri.		
<input type="checkbox"/> Argi homogeneozko fluoreszente bikoitzak.		
<input type="checkbox"/> Larrialdietarako argiztapena.		
<b>3 AIREZTAPENA</b>		
<input type="checkbox"/> Erauzketa-sistema.		
<input type="checkbox"/> Aire akastua saihesteko nahikoa.		
<input type="checkbox"/> Temperatura 15–18° C bitartekoa.		
<input type="checkbox"/> Sistemak iragazkiak ditu, atmosferara egiten den substantzien igorpena minimizatzen.		
<b>4 GARBIKETA</b>		
<input type="checkbox"/> Laborategiaren erabilpen-ordutegitik kanpo.		
<input type="checkbox"/> Likidoa pilatzen ez deneko zoladura.		
<input type="checkbox"/> Arriskurik gehien duten zonetan garbitasun handiagoa.		
<b>5 LARRIALDIETAKO BOTIKINA</b>		
<input type="checkbox"/> Seinaleztapena.		
<input type="checkbox"/> Laborategian istripurik izanez gero eskuhartzeko lehen laguntzen zerrenda.		
<b>6 SEGURTASUN-SISTEMA</b>		
<input type="checkbox"/> Suitzalgailuak.		
<input type="checkbox"/> Duxa.		
<input type="checkbox"/> Begi-garbitzailea.		



## 7 ELEKTRIZITATEA

- Koadro zuzenak eta ondo adierazitakoak.
- Kontaktuen aurkako babesa.

## 8 SUTEAK PREBENITZEA ETA ITZALTZEA

- Sua jasan dezakeen egitura.
- Kanpoaldera irekitzen diren leihoak.
- Suitzalgailuak: lan-lekutik hurbil, ikusten diren eta erraz har daitezkeen lekuan.
- Aldiro-aldiroko ikuskapena.
- Langileei jarraibideak ematea.

## 9 ZARATA

- Zenbait zonetan zarata gogaikarria da (erauzgailua, berogailuak, ...).
- Neurketarik egin al da?

## 10 BOTILAK ETA BONBONAK

- Behar direnak bakarrik.
- Identifikazioa: .....
- Erortzeko eta topo egiteko arriskuak.
- Bero-iturri edo substantzia sukoiaren inguruneak.
- Eguzki-izpietatik eta etengabeko hezetasuna babestea.
- Sua jasaten duten paretak.
- Arauen araberako etiketatua.
- Azetilenozko botilak beti zutik.
- Zurtoinetan kuprerik ez.

## 11 LANERAKO ARROPA

- Laborategian lan egiteko egokia den arropa eta zapatak.
- Ehun arina eta malgua.
- Manga luzeak, eskumuturrean ondo lotuta.
- Segurtasun-betaurrekoak.

## 12 HONDAKINAK

- Hondakinaren izaera fisiko-kimikoa kontuan hartuta, ontzi eta itxiera egokiak.
- Ontzi eta itxiera solidoak eta gogorrak.
- Etiketa argia, irakur daitekeena eta ezabaezina.
- Datuak:  
 Identifikazio Kodea (833/88 araudiaren I. eranskina).  
 Titularraren izena, helbidea eta telefono-zenbakia.  
 Ontziratze-eguna.

Arriskuen izaera (beltzez egindako piktograma, atzealdea horia duelarik; 833/88 araudiaren II. Eranskina.

- Gutxieneko tamaina 10 x 10 cm.
- Hondakinak toxikoak edota arriskutsuak badira, ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago biltegitatuta eduki.

### 13 PRODUKTU KIMIKOEN ETIKETATUA

- Produktu guztien ekitetan honako datu hauek azaltzen dira:

Erreaktiboa

Izena: .....

Formula: .....

Kontzentrazioa: .....

Araztasuna: .....

Arriskuen izaera: .....

Fabrikatzailearen marka: .....

### 14-BILTEGIRAKETA

- Produktu sukoiak eta errekinak banandurik.
- Lurrean ez da produkturik utziko.
- Biltegitatzeko orduan txukuntasuna eta antolamendua.
- Produktu bateraezinak, identifikatuta al daude?
- Arrisku handiko produkturik ba al dago, hala nola kantzerigenorik? Erantzuna baiezkoa bada, behar bezala, segurtasunez, biltegitatuta al daude?

Aurretik aztertu eta erregistratu ditugun ataletatik, zure ustez akatsak dituztenak adierazi, eta laburpen batean bildu; ondoren, a riskuen ebaluazioari buruzko txostenetan bilduko dira datu guztiak.

ALDERDIA

ANTZEMANDAKO AKATSA

ERREFERENTZIA-DATUAK

## 2.) Laborategiko produktu kimikoak, ingurugiroarentzat eta gizakion osasunerako oso arriskutsuak direnak identifikatzea.

Egunero 80.000 substantzia kimiko erabiltzen direla kalkulatu da (demagun merkatuan 7 milioi substantzia kimiko eskura daitekeela); guk laborategietan ditugunak berrehun inguru izatera irits daitezke. Gure lanaren izaera dela eta, zenbait substantzia kimiko gure osasunerako eta ingurugiroarentzat oso arriskutsuak dira, oso toxikoak baitira eta substantzia horien egiturak natur sistemetan denbora luzez geratzen baitira.

Horrexegatik, hain zuzen, Europako Batasunak substantzia kimikoen merkaturatzea eta erabilera mugatu egin du, osasunerako eta ingurugiroarentzat ondorio benetan kaltegarriak eragin baitezakete.

Jarraian azaltzen den koadroa, EBean merkaturatzea mugatuta duten substantzia kimikoak aipatzen dira.



**MERKATURAKETA MUGATUA DUTEN SUBSTANTZIA KIMIKOAK**

(Iturria: INSHT. Instituto Nacional de Seguridad e Higiene en el trabajo. 1995)

PCB eta PCT.

Binil kloruroa.

Substantzia eta prestakin likido arriskutsuak.

Tri Fosfata (2,3- dibromopolino).

Bentzenoa.

Amianto.

Triaziridinilfosfina oxidoa.

Polibromobifeniloa (PBB).

Zenbait sustraien eta zuraren hautsa.

o-nitrobenzaldehido, (txantxetarako gailuetan).

Amonio sulfuroa eta polisulfuroak.

Bromoazetato hegaskorrak.

2-naftilamina eta gatzak.

4-nitrobifenilo.

4-aminobifenilo eta gatzak.

Berun karbonatoak.

Berun sulfatuak.

Merkurio konposatuak.

Artseniko konposatuak.

Konposatu organoestannikoak.

Di-(oxo-di-n-butilestano) hidroxiborano (DBB).

Pentaklorofenol, gatzak eta esterak.

Kadmioa eta bere konposatuak.

Monometil-tetrakloro-difenilo-metanoa (Ugilec 141).

Monometil-dikloro-difenilo-metanoa (DBBT).

Nikela eta bere konposatuak.

1.edo 2. kategoriako kantzerigenoak.

1.edo 2. kategoriako mutagenoak.

1.edo 2. kategoriako giza ugalkortasunerako arriskutsuak diren toxikoak.

Harrikatzen mundunarekin distilatutako produktuak.

Kloroformoa.

Karbono tetrakloruroa.

1,1,2-trikloroetanoa.

1,1,2-tetrakloroetanoa.

1,1,1,2-tetrakloroetanoa.

Pentakloroetanoa.

1,1-dikloroetilenoa.

1,1,1-trikloroetanoa.

Substantzia sukoiak.

Polibromobifenilo etereak.

Aipatu substantziak identifikatzean, segurtasun–jarraibideak har ditzakegu, aipatu substantzien erabilera dituen arriskuak minimizatzeke.

Ba al dago zerrendan aipatutako substantziarik laborategian?

Erantzuna baiezkoa bada, zein/zeintzuk?

.....


.....

.....

### 3.) Idatzizko prozedura bat landu, jarraian aipatzen direnen artetik:

- Laborategi baten ingurugiro–alderdi eta –arriskuen identifikazioa, analisia, sailkapena, balorazioa eta erregistroa.
- Erreaktibo kimikoen kontsumoen kontrola.

Idatzizko prozedura, burutuko den prozesu edo jardueraren elementurik esanguratsuenak islatzen dituen dokumentua da, erreferentzia estandar bezala erabiliko dena; horrela, prozedura beti modu berean gara daiteke, epe luzera fidagarria izango dela ziurtatuz.



Prozedura idazteari ekin baino lehen, prozeduraren mugak, hots hasiera eta amaiera, argi eta garbi zehaztu behar dira.

Hasierarekin, prozedura martxan jartzen da.

Amaiera, jardueraren amaitzean eta emaitzak eta jardueraren erregistroak direnean eta prozedura idatzizko dokumentuan zehazten den moduan egin dela hirugarren pertsonari baieztatzean iristen da.

### PROZEDURA BATEN OINARRIZKO ATALAK

Prozedura orok, jarraian azaltzen diren oinarriko atalak biltzen ditu:

**XEDEA:** zer lortu nahi den, prozedura antolatzeke arrazoia. Xedea helburua da, eta zertarako balio du? galderari erantzuten dio.

Ezarpen–esparrua prozeduraren hedaturari dagokio.

**HEDADURA:** zein jardueraren, lokal, eta abarretan ezarriko da prozedura? Eta galdera zuzena da, Zerri edo noiz ezarri behar da?

**DEFINIZIOAK:** Atal hau, aipatu prozedura burutu behar duten lagunek ezagutzen ez duten hitzik edo kontzepturik azaltzen bada garatuko da.

**LANERAKO METODOA:** atal honetan zehatza–mehatz deskribatzen dira burutuko den jardueraren sekuentzia guztiak, hau da, atal honetan jardueraren “nola” garatu behar den definitzen da.


**FUNTZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK:** honako atal honetan zeregin bakoitza nork egingo duen eta jardueraren horiek zuzen burutzearen arduraduna zein den definitzen da (lanerako metodoaren zehaztapenen arabera).



**LEGERIA, ARAUAK ETA ERLAZIONATUTA DAUDEN DOKUMENTUAK:** honako atal hau, lege-betekizunak, arau-betekizunak edo teknikoak, prozedurak deskribatzen duen jardueran eragina dutenak, azaltzen badira bakarrik garatuko da.

**ERANSKINAK:** prozedurak deskribatzen duen jarduera modu kontrolatuan burutzeko behar diren formatu desberdinak definitzeko erabiltzen da atal hau. Txekeo-zerrenda, informazioa biltzeko egoera-orriak, erregistro-formatuak, eta abar.

### PROZEDURA BATEN DOKUMENTAZIORAKO SEKUENTZIA



**ERABILIKO DEN FORMATUTA**

Prozedurak eranakinetako DIN A4 orrialdeari dagokion formatuan idatzi behar dira.

Prozeduraren orrialde bakoitzaren buruan, izenburua, ikuskapenaren zenbakia, kodearen arabera identifikazioa, orrialdearen zenbakia eta landu zeneko eguna adieraziko dira.

Orrialdeetan zenbakiak jarri behar dira ("n" orrialdetako orrialdea)

**PROZEDURAK ONESTEA. HEDAPENA**


Edonolako prozedura martxan jartzeko, alde aurretik arloko arduradunei proiektu moduan aurkeztu behar zaio, arduradunek aztertu ondoren behin betirako bateratu ahal izateko.

Prozedura adostu ondoren, onetsi den egunetik aurrera prozedura martxan jarriko da. Onetsitako prozedura guztiak behar bezala identifikatu behar dira, eta Agintaritzaren erantzukizuna izango da aipatu prozedurak hedatzea.

**4.) Ingurunean eragina duten analisi-lanaren alderdi zehatzak identifikatzea.**

Lana etxean egingo da, eta bertan laborategiko oinarrizko eragiketei buruz eskura dezakezun informazio guztia bilduko duzu.

Ondoren, analisi-metodo bat aukeratu eta zure ustez egokiak diren ingurugiro-alderdiak bilduko dituzu. Analisi-eredu bat eskainiko zaizu, kausa-efektua diagraman oinarritutakoa, aipatu ingurugiro-alderdiak identifikatzen laguntzeko; jada analisi-prozesu batean arriskuak eragiten dituzten talde handiak sailkatu dira.



Zeregin honetan laguntzeko, jarraian azaltzen den galdeketa aurkezten dugu.



### ANALISI-METODOETAN INGURUGIRO-ALDERDIK ETA -ARRISKUAK IDENTIFIKATZEKO GALDEKETA

IGORPENAK	Zuzena	Okerra
<input type="checkbox"/> Igorpenik sortzen duen analisi-prozesurik ba al dago?		
<input type="checkbox"/> Prozesuak identifikatuta al daude?		
<input type="checkbox"/> Igorpenen ezaugarriak ezagutzen al dira?		
<input type="checkbox"/> Igorpenak kontrolatuta al daude?		
Kontuz: (arreta berezia jarri BEROKETAK ETA DIGESTIOAK).		

Aipatu igorpenek ingurugiroan eragiten dituzten efektu ezagunak:

.....

.....

ISURKETAK	Zuzena	Okerra
<input type="checkbox"/> Isurketarik sortzen duen analisi-prozesurik ba al dago?		
<input type="checkbox"/> Prozesuak identifikatuta al daude?		
<input type="checkbox"/> Isurketen ezaugarriak ezagutzen al dira?		
<input type="checkbox"/> Isurketak kontrolatuta al daude?		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• organikoak eta ez-organikoak bereiztea,</li> <li>• isurketa desberdinen xedea, ezaugarrien arabera,</li> <li>• ontzi egokietan gordetzea,</li> <li>• prozesu hau garatzeko jarraibide zehatzak,</li> </ul>		
<input type="checkbox"/> Ez-organikoak, behar bezala tratatzen al dira?		
<input type="checkbox"/> Istripuz gertatzen diren isurketak edo isurketa ez identifikatuak izateko arriskurik al dago?		

Aipatu isurketek ingurugiroan eragiten dituzten efektu ezagunak:

.....

.....

.....

HONDAKINAK	Zuzena	Okerra
<input type="checkbox"/> Hondakinik sortzen duen analisi-prozesurik ba al dago?		
<input type="checkbox"/> Prozesuak identifikatuta al daude?		
<input type="checkbox"/> Hondakinen ezaugarriak ezagutzen al dira?		
<input type="checkbox"/> Hondakinak kontrolatuta al daude?		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• hondakin geldoak, hiri-hondakin solidoak, hondakin toxikoak eta arriskutsuak, bereizten al dira?</li> <li>• Hondakin desberdinen xedea, ezaugarrien arabera.</li> </ul>		

- ontzi egokietan gordetzen al dira?
- etiketatu, manipulazio eta biltegiaketa egokiak egiten al dira?
- prozesu hau burutzeko jarraibide egokiak?

HTAk behar bezala tratatzen al dira?

Identifikatu gabeko hondakinen ondorioz istripuak gertatzeko arriskurik al dago?

Aipatu hondakinek ingurugiroan eragin ditzaketen efektuak:

.....

.....

**ANALISI-PROZESUETATIK ONDORIOZTATZEN DIREN INGURUGIRO-ALDERDIAK ETA -ARRISKUAK JASOTZEKO FORMATU GENERIKOA**

IGORPENAK, ISURKETAK ETA HONDAKINAK (I, IS, H, dagokiona jarri)			
I, Is, H	Sailkapena Non sortzen da?	Prozesua	Kantitatea
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....

3.4.4. Kontsumoen kalkulurako fitxak

- Ura.
- Energia.
- Papera.
- Erreaktiboak.
- Beste zenbait material.

A) URA

Iturria identifikatzea	Emaria / minutuak/ iturria	Kalkulatu den denbora: minutuak/ eskola-eguna/iturria	Kontsumitutako litroak/egunero	Litroak/ alde aurretik defini- tutako aldia
1. zk.: iturri distilatzailea				
2. zk.:				
3. zk.:				



## B) ENERGIA

Kontsumo-puntua identifikatzea	Potentzia Watt	Kalkulatu den erabilpen-denbora /eguneko	Egunean kontsumitutako / Kilowattak	Kilowatt / aldeztatik definitutako aldia
1.zk.: Mufila				
2.zk.: Distilatzailea				
3.zk.: Berogailua				
4.zk.: Pizgailuak				

## C) PAPERA

Paper-mota, identifikatzea	Kalkulatutako kontsumoa: kilo/egun	Kontsumoa kiloka/ aldeztatik definitutako aldia
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....

## D) ERREAKTIBOAK

Identifikazioa	Arrisku-maila. (1= txikia 2= ertaina 3= handia)	Kontsumitzen deneko analisi-prozesua	Kalkulatu den kontsumoa/eguneko	Kontsumoa / aldeztatik definitutako aldia
1. zk.:				
2. zk.:				

## E) BESTE ZENBAIT MATERIAL

Identifikazioa	Kalkulatutako kontsumoa/eguneko	Kontsumoa /aldeztatik definitutako aldia
1. zk.: Plastikoa		
2. zk.: aluminiozko papera		


### KONTSUMOEN MINIMIZAZIOA

Kontsumoak eta kontsumo horiek non gertatzen diren ezagutu ondoren, arrazoiak aztertzea komeni da, hartara kausa horiei dagokienez, murrizteko prozedurak ezarri ahal izateko.

Horretarako, laborategiaren planoan kontsumo-puntuak adierazi behar dira, bereziki ura eta energia elektrikoari dagokienez.


Adibidea (laborategiaren plano batean oinarrituta).

Laborategiko ur-kontsumoa:



● Kontsumo handiena duten puntuak:

### KAUSEN AZTERKETA







### BURUTU DAITEZKEEN EKINTZA ZUZENTZAILAK

Ekintza	Arduraduna	Data	Metodoa
Beharrezkoak ez diren kontsumoak saihesteko kontzientziatzea.	Sendia.	99ko apirila	Komunikatzeko eta informatzeko kanpaina.
Iturrien mantentzea.	Mantentzearen arduraduna.	Urte osoa.	Junturen prebentziozko mantentzea.
Ur gutxiago kontsumitzen duten ordezko prozesuak aztertzea.	Laborategiaren arduraduna	99ko ekaina.	Azterlan teknikoa.

Jarduera hauekin amaitzeko, banakako txosten bat prestatu behar duzu, non honako datu hauek bildu beharko dituzun: laborategiaren egoera zehatza, ingurugiroarentzat puntu arriskutsuak, kontsumo baloratuak, ondorioztatu daitezkeen istripuak/arazoak eta analisi-prozesuak hobetzeko lanerako jarraibideak.

Lanerako jarraitu duzun bide hau, arau batean finkatuta dago, ISO 14001, hain zuzen, "hasierako ingurugiro-azterketa" bezala.

Txostenean, laborategiaren egoera isladatu behar duzu, eta horretarako, jarraian adierazten diren zenbait puntu lagungarri gerta daitezke:

KUDEAKETA-ITEM-ak	BAI	EZ	EA (ez du aplikatzen)
• Istripurik edo arazorik gertatuz gero, sistematikoki aztertzen eta erregistratzen al dira?			
• Ba al dago Larrialdietako Plan eguneraturik?			
• Ba al dago produktu kimikoak etiketatzeko, manipulatzeko eta biltegiratzeko idatzizko jarraibiderik?			
• Ba al dago substantzia kimikoak erabiltzen dituzten lagunei arriskuei buruzko informazioa emateko prozedurarik edo jarraibiderik?			
• Ba al dago Ingurugiro-larrialdiak kudeatzeko prozedurarik?			
• Produktu kimikoen erosketa eta kudeaketari dagokienez, funtzioak eta erantzukizunak definituta al daude?			
• Ba al dago laborategian hondakinak erabiltzeko, idatzizko prozedurarik edo jarraibiderik?			

Txostenean, garatu den prozesu osoaren ebaluazioa azaltzea komeni da.





## 2. jardueraren eranskina



### JARDUERA GARATZEKO BEHARREZKO KONTZEPTUAK

#### Ingurugiro-alderdia eta Ingurugiro-efektua

**Ingurugiro-alderdia:** Erakunde baten serbitzua, produktua edo jarduerak ingurugiroan eragiten dituen elementua da.

**Ingurugiro-efektua:** Antolamendu batek burutzen dituen jarduerak, egiten dituen produktuek eta eskaintzen dituen zerbitzuek ingurugiroan, zuzenean zein zeharka, eragiten duen ekintza eraldatzaile oro (edo aldaketa), onerako zein txarrerako izan.

**Ingurugiro-impaktua:** Antolamendu batek burutzen dituen jarduerak, egiten dituen produktuek eta eskaintzen dituen zerbitzuek ingurugiroan, zuzenean zein zeharka, eragiten duen ekintza eraldatzaile oro (edo aldaketa), onerako zein txarrerako izan.

OHARRA: definizio bera eman da bi kasuetan. "Ingurugiro-efektua" terminoa ingurugiro-kudeaketari buruzko UNE 77801 Arauak erabili eta finkatu zuen, eta beranduago, ISO Batzordeak "Ingurugiro-alderdia" kontzeptua hartu zuen ISO 14001 araua lantzerakoan. Aldaketa honen arrazoia da, "efektua" hitza "inpektua" bezala uler daitekeela, eta hori zen hain zuzen kudeaketa-sistemei buruzko arau batean saihestu nahi zena, izan ere prebentzioa azpimarratu nahi denez, arauaren xedea ingurugiroaren gaineko eragina izan ditzaketen ekintzak kudeatzea (prebenitzea, kontrolatzea, minimizatzea, eta abar) da.

- Birziklapena hondakinak eraldatzea da, ekoizpen-prozesuaren barruan, hasierako xede berarekin edo beste xede batekin berriro erabiltzeko, konpostajea edo compost izeneko produktu organiko bat sortzea, zein ongari bezala erabiltzen den, eta biometanizazioa edo hondakin organikoen bakterio-hartziduratik abiatuta gasa lortzea barne, baina energia berreskuratzeko errausketa ez da sartzen.
- Balorazioa, hondakinek dituzten baliabideak aprobetxatzea ahalbidetzen duen prozedura oro da, giza osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurugiroa kalte dezakeen metodori erabili gabe. Edonola izanda ere, kontzeptu honen barruan 952/1997 EDko 1. eranskinean aipatzen diren prozedura guztiak kontuan hartuko dira.

Lehenik eta behin sortu diren hondakinak identifikatu eta sailkatu behar dira, honako Funtz Teoriko honen amaieran azaltzen den fitxaren ereduaren arabera. Honako etapa hau oso garrantzitsua da, izan ere hondakinak ondo ezagutuz gero, tratamendurako metodori egokienak aukeratu ahal izan-



go dira. Behin honeraino iritsi ondoren, gogora ditzagun laburki, analisi-laborategi batean burutzen den jarduerak sortzen dituen hondakin nagusiak:

- **HIRI-HONDAKINAK EDO UDAL-HONDAKINAK:** Laborategian sortzen direnak eta arriskutsuzat sailkaturik ez daudenak; hondakin hauen izaera edo konposizioa kontuan hartuta, etxebizitza partikularretan, dendetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinen parekoak izan ohi dira.
- **HONDAKIN ARRISKUTSUAK,** 952/1997 EDko II. Eranskinean hondakin arriskutsu bezala sailkatu direnak dira, baita hondakin horiek gorde direneko ontziak ere. Europako Erkidegoko araudiak, eta Europako araudian edo nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoari jarraiki, Gobernuak onetsi dezakeen araudian arriskutsu bezala sailkatu direnak.

Behin hondakin horiek ezagutu eta sailkatu ondoren, hondakin horien iturria identifikatu behar dugu, kontrolatu ahal izateko eta minimizazio-plan egokia ezarri ahal izateko; guztien helburua hondakinak jatorrian murriztea eta hondakinen tratamendua egin baino lehen murriztea da. Zentzu honetan, burutu daitekeen aukera bat, material toxikoak ez hain toxikoengatik edo ingurugiroak onartzen dituen materialengatik ordezkatzeta da. Diluzioa ere ingurugiroaren gaineko eragina minimizatzeko beste modu bat da.


Lehengaietan aldaketak egiteaz gain, ezin dugu ahaztu, analisi-prozesuaren beraren teknologian ere aldaketak egin behar direla, kasu jakin batek hala eskatuz gero, hala nola ekipamenduan, tutueria-sisteman eta antolamenduan aldaketak, prozesuaren zati batzuk (behar dutenak) automatizatzea edo neurriak berriro ezartzea, ura eta energia alperrik ez galtzeko. Bestalde, teknikarien eta langileen plantila osoaren egoera neurri batean hobe dezaketen hobekuntzak ere egin beharko liriateke. Birziklapena kontuan hartu beharreko aukera garrantzitsua da. Material bat material birziklatua izango da, jarraian adierazten diren erabileretan berriro erabili bada: produktu bat lantzeko osagai bezala (lehengai edo tarteko produktua), funtzio jakin batean produktu bat ordezkatzeko, material hori prozesatuz produktu erabilgarri bat lortzeko, edo birsortuz.

Adibide moduan, distilazio-prozesuak jada erabilitako disolbatzaileak berreskuratzen burutzen dira, eta hori posible da, disolbatzaile desberdinek irakite-puntu desberdinak dituztelako, eta horien arteko aldeak berreskurapen-prozesuaren eraginkortasuna eragin dezake. Berreskuratutako disolbatzaileak, disolbatzaile horiek sortu dituen prozesuan bertan erabil daitezke, edo saldu, hartara ezarri den distilazio-prozesua errentagarri egiteko, are gehiago, etekinak atera ahal izateko.

Hondakinak sailkatzeko orduan, berariazko tratamendu bakoitzak bete beharreko baldintzak kontuan hartu behar dira, hondakinaren ezaugarriekin erkatuz, hartara irtenbiderik egokiena zein den jakin ahal izateko. Horrela, ezarriko den prozesua errausketa bada, bideragarria den kasuetan, kasu horretan, hondakinaren kaloria-balorea kontuan hartu beharko da, baita sufredun elementurik edo elementu halogenaturik ba ote dagoen ere, erre ondoren produktu kaltegarriak sor ditzaketenak, ura ba ote duten, eta abar. Baina hondakinak biltegiarako zentro berezi batera garraiatu nahi badira, beste zenbait ezaugarri hartuko dira kontuan, hala nola, toxikotasuna, iraunkortasuna, denborak aurrera egin ahala beste konposatu batzuetan eraldatzea, korrosio-maila, eta abar.

Egin ditzakegun hondakinen tratamendurako sistema egokienei buruz hitz egiten hasi baino lehen eta atal honekin amaitzeko, laborategian gerta daitekeen ingurugiro-istripu baten adibide bat jarriko dugu.

### HHSEN HONDAKINDEGI BAT, LABORATEGIAN SORTUTAKO HONDAKIN TOXIKOEKIN POLUITZEA



### TRATAMENDURAKO SISTEMAK

Hondakina sailkatu ondoren, tratamendurako sistema egokia diseinatu behar da. Hasteko, hondakinak biltzeko plana, hondakinak sortzen diren unean bertan egin behar da, hondakin horiek izango duten tratamenduaren arabera sailkatuz. Hondakin bat ezabatu baino lehen, hondakina birziklatu ote daitekeen kontuan hartu behar da, edo beste prozesu batzuetan tarteko produktu bezala erabili ote daitekeen. Hondakin horrek izan dezakeen erabilera bat, errekuntza- edo errausketa-prozesu batean energia-iturri bezala erabiltzea da, betiere prozesu horrek hasierako egoera baino poluzio gehiago eragiten ez badu. Hondakinari eman ahal zaion beste irteera bat, prozesuren batean lehengai bezala erabiltzea da.

Legeak onartzen dituen hondakinen tratamendurako eragiketak 952/1997 EDko 1. eranskinean bilduta daude. Hala ere, EDan oro har hitz egiten denez, ezar daitezkeen tratamendu nagusiak zehaztasunez azalduko ditugu:

#### TRATAMENDU FISIKOAK

- Esterilizazioa

Beroa da esterilizazioan gehien erabiltzen den eragilea. Objektuak bero lehorraren bitartez esteriliza daitezke, aire-giroa duen labe batean ezarriz, edo bero hezearen bitartez, lurrin beroa ematen duena. Lurrina erabili behar da beroaren bitartez ur-disoluzioak esterilizatzeko. Tratamendua autoklabe izena duen metalezko ontzi batean egin behar da, atmosferaren presioa baino altuagoa duen lurrinarekin bete daitekeena. Beraz, esterilizazioa urak irakin-puntura iristeko behar duen tenperatura baino altuagoan egin daiteke. Laborategiko autoklabea, giroaren presioa baino altuagoa den lurrinaren presioaren bitartez erabili daiteke, eta hori 120°C baino altuagoa da. Esporak ere berehala hiltzen dira tenperatura horretan. Likidoaren kasuan, bolumen txikiak direnean (3l bitartean), 20 minututan sutan jarriz esteriliza daitezke. Bolumen handiagoak esterilizatu nahi baditugu, tratamendua ezartzeko denbora luzatu egin behar da.



Autoklabean 120°C temperatura lortzeko, adierazitako presioan, atmosferak lurrina besterik ez du eduki behar. Beraz, eragiketari ekitean, autoklabean jatorrian zegoen aire guztia kanporatu egin behar da eta lurrinarekin ordezkatu; horretako lurrin-balbula ireki bat erabiliko da, airea balbulatik ateratzen den bitartean, baina atmosfera uraren lurrinez beteta dagoenean itxi egiten da. Barruan aierik geratuz gero, lurrinaren presio partziala manometroan adierazitakoa baino baxuagoa izango da, eta temperatura baxuagoa. Horrexegatik, autoklabe batek beti eduki behar du presioaren neurgailu bat eta tenperaturaren beste bat. Barrualdeko tenperatura kontrolatzeko, esterilizatu behar diren objektuen artean paper berezi batzuk sar daitezke, eta tratamendu termikoa egokia bada kolorea aldatzen zaie.

### TRATAMENDU KIMIKOAK

Tratamendu kimikoaren helburua hondakinak detoxifikatzea da, eta prozesu bakar edo berriazko eragile baten toxikotasuna murrizteko tratamendu bezala erabiltzen da, garraiatu, errautsi eta lurperatu baino lehen. Detoxifikazioa eragiten duen metodoa, ez da eragile kaltegarria ezabatzea, baizik eta ingurugiroak hobe jasan dezakeen beste eragile batean eraldatzea. Tratamendu kimikoak lau metodo handitan sailka ditzakegu, kasu bakoitzaren erreakzio-motaren arabera. Horrela, oxidazio-erreakzioak, erredukzio-erreakzioak, hauspeatze-erreakzioak eta neutralizazio-erreakzioak bereiz ditzakegu.

- Oxidazioa

Oxidazio-erreakzio bat, definiziorik oinarrizkoenari jarraiki, elektroien ekarria da, sarritan oxigeno-adizio batekin batera izaten dena, oxidatzaile izeneko substantzia batek oxidatzen den beste substantzia bati ematean.

Oxidazio-metodoa sarritan oso eraginkorra izan ohi da, hala nola zianuroak tratatzeko orduan, kloroa eragile oxidatzaile moduan erabiliz. Konposatu organikoen oxidazioa egiteko, oxidazioa aire hezearekin egiten da. Presioak eta tenperaturak gora egitean, disolbatuta edo airean dagoen materia organikoak duen fase likido baten bitartez airea burbuilatu egiten da. Metodo honen bitartez lortutako konposatu organikoak ezabatzeko azaldutako eraginkortasuna oso altua da, eta gainera hobe daiteke, horretarako gatz jakin batzuk erabiliz, hala nola erreakzioaren katalizatzaileak.

- Erredukzioa

Erredukzio-erreakzioak oxidazioaren aurkako prozesua dira, kasu honetan erreduzitu den substantziak konposatu erreduktoreari elektroiak uzten baitizkio.

- Hauspeatzea

Hauspeatze-erreakzioak, disolbatutako elementuak erretiratzeko erabiltzen dira, solido dardelarik modu desberdinetan hauspeatuz, betiere produktuaren disolbagarritasunaren erredukzioa bilatuz. Hori lortzeko modurik egokienetakoa, disoluzioa kanalizatzea da, 9–12 pH bitarteko baloreetara areagotuz, erretiratu nahi den elementuaren arabera. Metodo honen ezarpen nagusia, isurkinetan disoluzioan dauden metalak banantzea da. Hauspeaketa ioi bat gehituz ere egin daiteke, eta horrekin batera metalak disolbaezina den konposatu bat osatzen du, aluminioa aluminio-kloruro bezala lortzean gertatzen zen bezalaxe.

- Neutralizazioa

Erreakzio hauen helburua disoluzio baten pH aldatzea da, kasu bakoitzerako egokia den mailara iritsi arte. Oso oinarrizkoa edo alkalinoa den disoluzio bat dugunean, substantzia azidoak gehitzen dira, hala nola azido sulfurikoa, nitrikoa edo klorhidrikoa, pH egokia lortzeko kantitate nahikoan. Kontrako kasuan, disoluzio azido gehiegi dugunean, tratamendua oinarrizko substantziekin egingo da, hala nola, sodio hidroxidoa edo kaltzio hidroxidoa.

**TRATAMENDU FISIKO-KIMIKOAK**

Tratamendu hauek ez dute substantzia kimikoki aldatzen, baizik eta produktu arriskutsuak isolatu egiten dituzte, hondakinaren gainontzeko osagaietatik bananduz, hartara ondoren eman-go zaion tratamendua errazteko. Bereizketa-prozesurik ohikoenak honako hauek dira:

- Alderantzizko osmosia

Mintz erdi-iragazkor baten alde bakoitzean kontzentrazio desberdineko bi disolbatzaile jarriz gero, kontzentrazio txikiena duen disoluziotik, kontzentrazio handiagoa duen disoluziora disolbatzaile-molekulak garbi igarotzen dira, eta prozesu honetan gainditu den indarra osmosi-presioa da. Mintzaren alde batean disoluzio kontzentratu bat badugu, eta hortxe dagokion presio osmotikoa baino altuagoa den presioa ezarriz gero, osmosiaren prozesua aldatu egiten da, alegia aurkako bidea egiten du, eta mintzaren beste aldera disolbatzailearen molekulak igaroko dira, eta solutua hasierakoa baino kontzentratuagoa izatera pasako da.

- Distilazioa

Teknika honen bitartez, substantzia likido nahaskorrek elkarren artetik bereizten dira, lurrinkortasun desberdina baitute. Bi substantzia lurrinkorren nahasketaren kasuan, A eta B, A lurrinkoragoa da, beraz, nahasketarekin orekan egiten den lurrinaren fasea, A substantzian B substantzian baino aberatsagoa da, eta lurrin-fase hori kondentsatuz gero, lortuko dugun nahasketa berria, A substantziari dagokionez aberatsagoa izango da. Lurrinaren fasea behin eta berriro kondentsatuz, A konposatuari dagokionez lagin purua lortuko genuke.

Zatikako distilazioa distilazio-mota bat da, zatikapen-zutabe batean egiten dena, non lurrinketa-kondentsazio oreka asko sortzen diren, eta horrek bereizketa askoz ere eraginkoragoa izatea ahalbidetzen du. Beste distilazio-mota bat da, airearen bidezko garbiketa. Teknika hau poluitzaileen nahasketaren albotik aire-korronte bat pasaraztean datza, dorre baten bitartez, eta horrela, nahasketaren poluitzaile lurrinkorrek aire-korrontera pasatzen dira. Erretiratu nahi diren osagaiak lurrinkortasun txikia izatean, airea erabili beharrean lurrina erabiltzen da, eta ondorioz, disolbagarritasuna murriztu egiten da, bide batez aipatu osagaien bereizketa erraztuz.

- Ikatzen bidezko adsortzioa

Ikatza oso konposatu adsorbatzailea da, beraz, korronte gaseosoetan aurkitzen diren poluitzaileak erretiratzeko erabiltzen da; poluitzaileak ikatzen azalera itsasten dira gas-korronteak zeharkatzen dituztenean, eta prozesuan barna garbitu egiten dira. Silizearen gela eta alumina ere material oso adsorbenteak dira.

- Ioiien trukea

Teknika honetan, hondakin-isurkina kasu bakoitzerako berariazko erretxina batzuetatik igarotzen da, eta horien azalera gauzatzen da ioien trukea, hots erretxinaren ioiak eta disoluzioaren ioiak, karga berekoak, elkarren artean trukutzen dira.

- Elektrodialisia

Disoluzioan dauden ioiak eremu elektriko baten bitartez bereizteko prozesu bat da. Katodoaren eta anodoaren artean, zenbait mintz iragazkor selektibo kokatzen dira, katioientzako eta anioientzako. Zirkuitua konektatzean, katioi bakoitza katodorantz mugitzen da eta anioi bakoitza anodorantz, disolbatzailea ioirik gabe erretiratuz.

- Disolbatzaileen bidezko erauzketa

Konposatu disolbagarri bat disolbagarriak ez diren konposatuen nahasketa batetik erretiratu nahi badugu, multzo osoari disolbatzaile bat ezarriko diogu, hartara disolbagarria den kon-



posatua disolbatzailearekin erretiratu ahal izateko. Prozesuarekin amaitzeko, konposatua disolbatzailetik bereizi behar dugu, kasu bakoitzean egokien den metodoari jarraiki.

### TRATAMENDU BIOLOGIKOAK

Izadiak baditu hondakin-materialen biodegradaziorako berezko sistemak. Arazoa gizakiak aipatu zikloetan substantzia artifizialak, mikroorganismoek degradatzeko zailak direnak, eta lehengaietatik abiatuta berak sortutako substantziak sartzean sortzen da. Substantzia ez-biodegradarri horien konposizioan deshalogenaziorik eginez gero, hots halogenoak kenduz gero (Cl, F, Br,...), arazoa neurri handi batean txikitu egiten da. Deshalogenazioa anaerobiaren erredukzio-prozesu batean gauzatzen da, eta aipatu erredukzio-prozesua, funtsean jarraian aipatuko ditugun alderdien menpe dago: temperatura, pH, bakterioek jarduteko beharrezkoak diren zenbait substantzia, hala nola oxigeno askea edo beste molekula batzuetan dagoen oxigenoa ( $\text{NO}_3^-$ ,  $\text{SO}_4^{2-}$ , et a abar), biozidarik ez egotea, gazitasun-maila, eguzki-argia izatea ala ez, eta abar. Hondakin organikoen tratamendurako dauden prozesu biologikoak, funtsean, jarraian aipatzen direnak dira:

- Fermentazio biologikoa
- Lohi aktibatua

Tratamendurako sistema desberdinak dira, non tratatu den isurkina mikroorganismoen kultibo-likidoarekin batera nahasten den. Elkarreragin honen ondorioz, substantzia poluitzaileak aerobio erdian oxidatzen dira, ondorioz, lohi aktibatua tankearen hondoa geratzen dira eta goian jada tratatu diren eta poluziorik ez duten urak geratzen dira. Prozesuaren errendimendua areagotzeko, aireztapen uniformea eta homogeneizazio egokia egin behar dira, eta horretarako palak edo turbinak erabiltzen dira.

- Bakterio-tratamenduak

### ERRAUSKETA

Oso temperatura altuan egindako oxidazioa da, non errekin bezala hondakinak erabiltzen diren; hondakin hauek prozesuan barna suntsitzen dira. Errekuntzarako funtsezko produktuak  $\text{CO}_2$ , ura eta errautsak dira. Errekina konposatu sufreduna bada, azufre dioxidoa sortuko da, gas poluitzailea dena. Errekin bezala produktu halogenatuak erabiliz gero, dagozkion halogenoen azidoak sortuko dira. Kasu honetan, konposatu kloratuek garrantzi berezia dute, izan ere oso arruntak dira eta erretzean azido klorhidrikoa askatzen dute. Gas-igorpenetan azaltzen den errekuntzaren beste produktu bat, airean geratzen diren partikulak dira, horiek ere kontuan hartu beharrekoak. Azkenik, errekuntzaren emaitza bezala errautsak geratzen dira, metalak dituztenak eta lurrindu ez direnak. Produktu horiekin guztiekin batera, errekuntza desegokia egiteagatik sor daitezkeen beste zenbait ere kontuan hartu behar dira; errekuntza osoa izatea nahi badugu, errauskailuan, prozesuan barna, airea soberan sar daiteke.

Bi oinarritzko errauskailu-mota daude: injekzio likidoko errauskailua (isurkina presio altuan injektatzea, atomizazioa, lurrinketa eta oxidazioa, 800–1000 °C bitarteko temperaturan), eta labe birakaria (hondakin solido eta likidoen kasuan). Produktuak labetik ateratzean, igorritako airea kontrolatzeko sistemak eduki behar dira, eta honako osagai hauek izango dituzte: lehenik eta behin, erre ez diren produktuak erretzeko erregailuak, jarraian, ur-pantailak, igorritako gasetik airean izan daitezkeen partikulak erretiratzeko eta gas-azidoak hauspeatzeko, eta azkenik, hauspeatzaile elektrostatikoak, partikularik txikiak bereizteko. Substantzia arriskutsuen errauskailu bat instalatzeko, errautsiko diren konposatu organiko arriskutsuak modu eraginkorrean suntsituko direla ziurtatu behar da, %99,9ko gutxieneko eraginkortasunarekin. Gainera, azido halogenatu-kantitatea ere kontrolatu behar da, bereziki azido klorhidrikoa, baita atmosferara igorritako partikulak ere. Azkenik, oinarritzko baldintzak ditugu, indarrean dagoen araudia eta gizartea.

**INERTIZAZIOA**

Teknika–multzo bat da, eta helburutzat, hondakin baten ahalmen poluitzailea murriztea du, horretarako hondakina eraldatuz, edo material inaktibo batera gehituz. Esate baterako, erabilitako olioaren PCB tratatzeko, sodio metala PCBren eta olioaren beste osagai batzuen kloro–atomoekin erreazionarazi daiteke, tenperatura 150°C baino gehiago delarik. NaCl eta polimero ez–kloratuak sortzen dira. Erreakzioa sodio gehiegirekin egiten bada, NaOH eta H<sub>2</sub> sortzen dira. Modu honetan tratatutako olioak PCB kontzentrazio oso txikiak izango ditu. Beste zenbait kasuetan materiala beiratzten da, eta prozesu batzuen bitartez, arazoa sortzen duen produktua, aldezturik tratatu dena, berotu egiten da, beste konposatu batzuekin nahastu, eta azkenik masa amorfo beiratuak lortuz, hondakindegira eraman daitezkeenak.

**ERANSKINA****INGURUGIROA KUDEATZEKO SISTEMAK**

Ingurugiro–mailako legeak eta araudiak ez dira moda berria. Hain zuzen, EEBBetan, 1899an onetsi zen lehenengo ingurugiro–legea, “*Hondakinen akta*” bezala ezagutu zena. Hala ere, mende honetako hirurogeiko hamarkada arte, poluzioaren, ekologiararen eta ingurugiroaren gaineko interesa ez zen ingurugiroa babesteko nazioarteko mugimendu batean isladatu. European, mugimendu horren eraginpean, Berdeen Alderdia sortu zen, 1983an Alemaniako Alderdi Berdeak hauteskundeetan izandako arrakasta ikusi ondoren. Handik gutxira, herrialde askotan zegoen alderdi berde bat, natur ingurunea babesteko legeria sustatzeko helburua zuena. Laurogeiko hamarkadan alderdi hauen botereak gorakada izan zuen; horrek presio handia izan zuen gobernu desberdinetan, natur baliabideak galtzen ari zirela eta, poluzioa, biztanleria eta gizartea oso industrializatuta zegoela eta.

Bestalde, Nazioarteko Merkataritzako tratatu desberdinek, hala nola Mercosur edo GATT, eta Europako Batasuneko elkarte desberdinek, herrialde askotan ezar daitezkeen arauak behar dituzte, eta aipatu arauak munduko merkataritzarako elementu kritiko bilakatu dira. Aldi beran, Nazio Batuek ere aztertu dituzte herrialde desberdinetako ingurugiro–alderdiak. Esate baterako, 1972an Estokholmon, Giza Ingurugiroari buruzko Konferentzia egin zen. Ondorioz, poluzioak nazioartean zituen eraginei buruzko eztabaida piztu zen, eta ingurugiroa babesteko iritzi desberdinak azaldu ziren. Hori guztia Nazio Batuek 1992an Rion Ingurugiroa eta Garapenari buruz antolatu zuen Konferentzian aztertu zen, eta bertan “garapen jasangarria” izan zen aztertu zen kontzeptu nagusia. 1993ko uztailan, Erkidegoko Egunkari Ofizialean 1836/93 ED EEEko Araudia argitaratu zen, non ingurugiroaren gaineko kudeaketa–programak eta –sistemak garatzeko bete beharreko baldintzak azaltzen ziren; ezagunagoa da EMAS araudia izenarekin. Horrez gain, Europako Batasuneko zenbait herrialdetan, zentzu honetan arau nazionalak landu dituzte, esate baterako Britainia Handia (BS 7750) eta Espainia (UNE 77801).

Rioko Gailurrean garapen jasangarrirako ekintza globalaren plana lantzen zen bitartean, hain zuzen **Agenda 21** bezala ezagutzen duguna, Tokiko Ingurugiro Ekimenen Nazioarteko Kontseiluak (ICLEI), aipatu planean toki–gubernuen rola eta ikuspegi desberdinak kontuan hartzea sustatu zuen.

Beraz, orain arte aipatu dugun guztiak izan dezakeen eragina kontuan hartuta, ingurugiroaren gaineko kudeaketaren ikuspegi sistematikoa eta globala behar zela konturatu ziren, eta ikuspegi hori nazioarteko arau baten bitartez lortu zen. Horretarako, Normalkuntzarako Nazioarteko Erakundea (ISO), ISO/TC 207 Batzorde Teknikoa, Ingurugiroaren gaineko Kudeaketaz arduratzeko sortu ziren; gainera, azken honek 176 Batzorde Teknikoarekin batera lan egin du, zeinek ISO 9000 Seriearen kalitate–arauak betetzen ote diren kontrolatzen duen. 207 TC–ren helburua, oinarritzko zenbait arau–forme definitzea zen, hartara erakundeak ingurugiroa babesteko helburuak lortu ahal izateko, kudeaketarako lanabes eta sistema eraginkorrak erabiliz, eta aldi berean, merkataritzan eta trukean izan dezakeen aurkako eraginetik babestuz. Aipatu batzordeak egindako lanaren ondorioz, ISO 14.000 Seriearen ingurugiro–arauak landu dira; ISO 14.000 Seriearekin ingurugiroaren gaineko kudeaketa





egiteko borondatezko nazioarteko araudi bat sortu nahi da, alegia, erakundearen ingurugiroaren azterketa eta kontrolatzeko sitemak garatzea, erakundeak berak, bezeroek eta legeriak dituen beharrak asetzeko.

ISO 14000 Serieak biltzen dituen arauen artetik, UNE-EN ISO 14001 edo *“Ingurugiroa Kudeatzeko Sistemak. Erabiltzeko Zehazpenak eta jarraibideak”* araua da nagusia, eta arau hau Ingurugiroa Kudeatzeko Sistema (IKS) bat erregistratu edo baieztatu nahi denean erabiltzen da; kudeaketa-sistema orokorraren barruan, antolamendu-egitura, jardueren plangintza, erantzukizuna, praktikak, prozedurak, prozesuak eta Erakundearen ingurugiro-politika garatzeko, ezartzeko, martxan jartzeko, berrikusteko eta eguneratua edukitzeko lanabesak biltzen dira. Honako arau hau 1996ko irailan onetsi zuten eta gaur egun IKS batek eskatzen dituen baldintza guztiak jasotzen ditu. Martxan jarri ahal izateko, lau fase desberdinez osatutako prozesu bat jarraitu behar da:

- Ingurugiroaren gaineko eraginetatik abiatuta, plangintza, analisia eta ebaluazioa egitea.
- Ezarpena, erantzukizunak, ekintzarako plana eta dokumentazioa definituz.
- Barne-auditorien sistema bat egiaztatzea eta garatzea.
- Aldiro-aldira erakundeak ikuskapenak egitea.

Lehenengo faseari dagokionez, gaur egun ingurugiro-alderdiak ingurugiroaren gaineko inpaktuak baino gehiago hartzen dira kontuan, hau da, ingurugiro-alderdiak, ingurugiroarekin elkarreragina izan dezaketen erakunde baten jardueren, produktuen edo zerbitzuen elementuak dira; eta ingurugiroaren gaineko inpaktuak, ingurugiroak jasaten duen edonolako aldaketa da, aldekoa zein aurkakoa, batez ere erakunde baten jardueren, produktuen eta zerbitzuen ondorioz izaten direnak. Lehenengo multzoan, hots ingurugiro-alderdietan, honako hauek sartuko ditugu:

- Produktu kimikoen tratamendua (segurua).
- Produktu kimikoen eta beste zenbait material arriskutsuen arriskurik gabeko (segurua) isurkina (edo hondakina).
- Zarata eta argiztapena.
- Lan-bizitzaren kalitatea.
- Aire poluituaren igorpenak (barrualdeko eta kanpaldeko airearen kalitatea).
- Ur-isurketa eta isurketarekin batera garraiatzen diren poluitzaileak.
- Auzoan izandako ingurugiroaren gaineko aldaketak.
- Birziklapen-jarduerak.
- Enbalaje eta etiketatu ekologikoa.
- Produktuaren bizi-zikloa, produktuak ingurugiroan dituen eraginak kontuan hartuta, produktuaren lehengaiak lurzorutik hartzen direnetik, ekoizpenera, banaketara edo salmentara, amaierako produktura iritsiz (hondakina, isurkina, eta abar) eta azkenik produktuaren tratamendua.
- Baliabideen erabilera (kontserbazioa).

Azkenik, IKS bat erakunde edo antolamendu batean ezartzeak dituen abantailen artetik, honako hauek aipatuko ditugu:

- Legeria betetzea.
- Bezeroen eskakizunak betetzea.
- Erakundearen itxura hobetzea.

- Baliabideak hobeto erabiltzea.
- Ustiapen-kostua murriztea.
- Departamentuen arteko komunikazio hobea.
- Kalitate gorena.
- Tarteko aginteen lana hobetzea. Ondo garatutako IKS bat, ondo landutako kudeaketa-sistema baten zati izango da. Hain zuzen, kudeaketa-sistemen elementu komunak daude, eta kudeatzeko joera berriak kudeaketa-sistema integratuak azpimarratzen ditu, non kalitatea, ingurugiroa eta laneko segurtasuna eta osasuna kontzeptuak biltzen diren.
- Segurtasun-maila handiagoa.
- Erkidegoaren aurrean, irudia hobetzea.
- Erakundearen politiken trinkotasuna eta koherentzia.
- Enpresaren kudeatzaileengan konfidantza handiagoa.
- Antolamendua eta norbera asetzea.
- Kontsumitzaileen beharrak hobeto asetzea.
- Hornitzaileekin izaten diren harremanen trinkotasuna eta koherentzia.
- Erakundearen gaitasuna egiaztatzea.
- Kapitalera iristeko aukera gehiago.
- Arriskua mugatzea.
- Aseguruak, baimenak eta bestelako ahalmenak lortzeko erraztasuna.
- Teknologia transferitzea.

ISO 14001 arauaren 4. atalaren barruan, IKS baten baldintza guztiak biltzen dira:

- 4.1. Baldintza orokorrak.
- 4.2. Ingurugiro-politika.
- 4.3. Plangintza.
  - 4.3.1. Ingurugiro-alderdiak.
  - 4.3.2. Lege-baldintzak eta bestelako baldintzak.
  - 4.3.3. Xedeak eta helburuak.
  - 4.3.4. Ingurugiroa Kudeatzeko Programa.
- 4.4. Ezarpena eta funtzionamendua.
  - 4.4.1. Egitura eta erantzukizunak.
  - 4.4.2. Lanbide-prestakuntza, sentsibilizazioa eta gaitasuna.
  - 4.4.3. Komunikazioa.
  - 4.4.4. Ingurugiroa kudeatzeko sistemari buruzko dokumentazioa.
  - 4.4.5. Dokumentazioaren kontrola.
  - 4.4.6. Lanerako kontrola.
  - 4.4.7. Larrialdietarako planak eta erantzuteko gaitasuna.
- 4.5. Egiaztatzea eta ekintza zuzentzailea.
  - 4.5.1. Jarraipena eta neurketa.



4.5.2. Desadostasuna, ekintza zuzentzailea eta prebentziozko ekintza.

4.5.3. Erregistroak.

4.5.4. Kudeaketa-sistemaren auditoria.

4.6. Zuzendaritzaren ikuskapena.

Gainera, ISO 9001 arauarekin bezalaxe, dokumentazio-sistema bat eduki behar da, oinarritzko lau maila izango dituena:

- I. MAILA.** Deklarazio politikoa. Baieztapen laburrak dira, zeintzuk ISO 14001 arauak eskatzen dituen baldintzak betetzen ote diren justifikatzen duten. Pertsona arduradunaren kargua barne. Alderirik garrantzitsuena Ingurugiro Politika da. Erakundeak egiten duen deklarazio bat da, non erakundeak ingurugiroaren gainean duen portaeratik abiatuta, helburuak eta printzipioak zehazten diren, eta ondorioz, jarduteko eta ingurugiro-mailako xedeak eta helburuak betetzeko esparru bat eskaintzen da. Ingurugiro Gidaliburuarekin batera argitaratzen da, non Erakundearen antolamendu-koadroa ere azaltzen den.
- II. MAILA.** Lanerako prozedurak. Berariazko prozesu baten deskribapena da, alegia, urrats edo zeregin desberdinek osatzen duten prozesua, non jende askok parte hartzen duen. Helburua, prozesua nola, non, nork eta zergatik garatzen den zehaztea da. Prozedurak prozeduren Gidaliburuan azaltzen dira.
- III. MAILA.** Lanerako jarraibideak. Zeregin jakin bat betetzeko jarraitu behar diren urratsak deskribatzea dute helburu. Oro har, pertsona bakar batek garatzen du zeregin hau. Prozeduren Gidaliburuko prozeduren artean sartzen dira.
- IV. MAILA.** Emaitzak. Prozedurak edo jarraibideak betetzean, ingurugiro-emaitzak lortzen dira, ISO 14000 arauaren badintzek kontrolatzen dituztenak.

## PROZEDURA BATERAKO FORMATUAREN EREDUA

Laborategiaren izena	<b>Prozeduraren izena</b>	Ikuskapen-zenbakia:
Ingurugiro Prozeduren Gidaliburua		Data: n-tik 1go orrialdea Laborategiaren Anagrama

## PROZEDURAREN ONESPENA

Kargua: Laborategiaren Zuzendaria

Izena:

Sinadura:

Laborategiaren izena	<b>Prozeduraren izena</b>	Ikuskapen-zenbakia:
Ingurugiro Prozeduren Gidaliburua		Data: n-tik 1go orrialdea Laborategiaren Anagrama

## AURKIBIDEA

1. Xedea
2. Eragina
3. Definizioak
4. Lanerako sistema
5. Funtzioak eta erantzukizunak
6. Erlazionatutako dokumentuak
7. Eranskinak

**HONDAKINEN FITXA**

Izena:

Formula kimikoa:

**EZAUGARRI FISIKOAK**

Egoera (S, L, G)

Kanpo-itxura

(kolorea, distira, egitura  
kristalinoa).

Purutasun- edo

biskositate-maila.

Usaina eta zaporea.

Dentsitatea.

Fusio-puntua, irakite-puntua

eta izozte-puntua.

Giro-tenperaturan, disolbagarritasuna.

Erretzeko gaitasuna.

**EZAUGARRI KIMIKOAK**

Izaera azidoa edo oinarrizkoa.

Beste konposatu batzuekin

egin daitezkeen konbinazio

kimiko garrantzitsuak,

ingurugiro-ikuspegitik.

Aurkako giro-baldintzetan

egonkortasun

kimikoa.

**TOXIKOTASUNA (Bai gizakiarentzat bai animalientzat eta landareentzat ere.)**

Substantziak uretan

zein atmosferan gehienez

izan dezakeen kontzentrazioa,

substantziak ekosistema

arriskuan jartzeko arriskua egon

baino lehen.

Metaketa-bideak.

Toxikapenik egonez gero,

larrialdietarako tratamendua.

**TRATAMENDU EGOKIENAK**

Tratamendu fisikoak.

Tratamendu kimikoak.

Tratamendu fisiko-kimikoak.

Tratamendu biologikoak.





## 5. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
Zer gertatzen da gure inguruneko laborategietako hondakinekin?	Ikastetxeko eta inguruneko laborategiak	3 ordu

### LANERAKO HELBURUAK

- Analisi edota kontrol kimiko edota biologikoen prozesuetan sortutako hondakinak identifikatzea, ebaluatzea eta erregistratzea.
- Dagokion ingurugiro-legeria ezartzea.
- Ingurugiroa babesteko nork bere eta taldeko ekintzak proposatzea.

### BALIABIDEAK

- EHK (94/3/EB Erabakia).
- 10/1998 Legea, Hondakinei buruzkoa.
- 952/1997 ED.
- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Plan Orokorra.
- ISO 14001 Araua.
- Bideoa: Laborategi kimikoetan hondakinen kudeaketa.
- Bertako XXI Agenda (B21As) Plangintzarako Europako Gida.

### METODOLOGIA

Ikasleek, bikoteka, hiriko analisi kimiko edota biologikorako laborategi desberdinetarako, publikoak zein pribatuak, hondakinak biltzeko plan bat landu behar dute. Horretarako, jarraian azaltzen diren zereginak burutu beharko dituzte:

Laborategi bat aukeratzea, jarraian azaltzen diren kategorietako bateko laborategia:

- Industria-sektoreko pribatua.
- Zerbitzuen sektoreko pribatua.
- Udal-laborategi publikoa.
- Eusko Jaurlaritzako laborategi publikoa.
- Estatuko laborategi publikoa.
- Europako laborategi publikoa.

Apirilaren 21eko 10/1998 Legea, Hondakinei buruzkoa (1998ko apirilaren 22ko BOE) berrikustea, bereziki jarraian azaltzen diren atalei dagokiena:

- Administrazio-gaitasunak ("Arau Orokorrak" I. Izenburuko II. Atala).
- Hondakinak sortzen dituzten produktuak merkaturatzean sortzen diren betebeharrak (II. Izenburua).
- Hondakinak, ekoiztea, edukitzea eta kudeatzea (III. Izenburua).
- Ikuskapena eta zaintza. Administrazio-erantzukizuna eta araudi zigortzailea (VI. Izenburua).

- Hondakinen kategoriak (Legearen Eranskina).

Aukeratu den laborategian, analisi- edota kontrol-prozesuan barna sortutako hondakinak identifikatzea, hondakin bakoitzerako hondakinaren fitxa bat landuz, non jarraian adierazten dugun informazioa azalduko den:

- Substantziaren izena:
  - Bai izen teknikoa, bai erabiltzen diren izen arruntak edo betiko izenak ere.
- Hondakina osatzen duen/duten konposatuaren edo konposatuen formula kimikoa:
  - Formula behar den neurrian garatuko da, beste konposatu batzuekin izan ditzakeen elkarrekin aurreikusteko, eta neutralizaziorako ezar daitezkeen tratamendu kimikoak diseinatzen.
- Ezaugarri fisikoak:
  - Baldintza normaletan duen egoera (solidoa, likidoa, gasa).
  - Kanpo-itxura (kolorea, distira, solidoen kasuan egitura kristalinoa).
  - Purutasun- edo biskositate-maila.
  - Usain eta zapora bereziak.
  - Dentsitatea.
  - Fusio-puntua, irakite-puntua eta izozte-puntua.
  - Giro-tenperaturan, ereduak disolbatzaileetan, bai ez-organikoetan (ura), bai organikoetan ere (azetonak, etera, kloroformoa, eta abar), disolbagarritasuna (edo nahaskortasuna, dagokionaren arabera).
  - Erretzeko gaitasuna.
- Ezaugarri kimikoak:
  - Izaera azidoa edo oinarritzkoa.
  - Beste konposatu batzuekin egin daitezkeen konbinazio kimiko garrantzitsuak, ingurugiro-ikuspegitik.
  - Aurkako giro-baldintzetan egonkortasun kimikoa.
- Toxikotasuna:
  - Bai gizakiarentzat bai animalientzat eta landareentzat ere. Une honetan, asimilazio-bidea adierazi behar da (ingestioa, arnasketa, zurgapen epiteliala, eta abar), baita toxikapenik gertatuz gero ezarri beharreko larrialdietako tratamendua adierazi ere.
- Substantziak uretan zein atmosferan gehenez izan dezakeen kontzentrazioa, substantziak ekosistema arriskuan jarri baino lehen.
- Lantzen ari garen berariazko hondakinarentzat tratamendu-mekanismo egokienak:
  - Tratamendu kimikoak (oxidazioa, neutralizazioa, ...).
  - Tratamendu fisiko-kimikoak (distilazioa, osmosia, errausketa).
  - Tratamendu biologikoak.

Identifikatutako hondakinak biltzeko plan baten proposamena egitea, prozedura normalizatuaren bitartez, UNE-EN-ISO 14001 Arauaren arabera, Ingurugiroa Kudeatzeko Sistemari buruzkoa (IKS), jarraian azaltzen diren atalak biltzen direlarik:

- Xedea.
- Eragina.
- Definizioak.
- Lanaren garapena
- Funtzioak eta erantzukizunak.
- Erlazionatutako dokumentuak
- Eranskinak (erregistroaren egoera-orriak).

Eragindako laborategiaren plana aurkeztea eta guztion adostasunarekin plana onartzea.

Gelan, diseinatu diren planen inguruko eztabaida egitea; irakaslea izango da moderatzailea, eta ahal izanez gero, kanpoko teknikarien parte-hartzea lortu behar da; eztabaidan azaltzen diren puntu komunak jaso eta plan bateratu batean idatziko dira, ondoren eskumeneko Administrazioan aurkezteko (hondakin arriskutsuak (HA) badira Eusko Jaurlaritzan, edo beste kasuetan Udalean).





Aipatu planak **Garapen Jasangarriarekin** duen erlazioa, eta toki-mailan XXI Agendarekin inplikatu ote daitekeen zehaztea, (Bertako XXI Agenda B21A).

## EBALUAZIOA

### JARDUERAK

- Aukeratu den laborategiari buruzko txostena, banakakoa, bertan laborategi hori aukeratzeko izandako arrazoiak zehaztuz.
- Jardueraren deskribapenean aipatu ditugun Legearen alderdi desberdinei buruzko banakako txostena egitea.
- Txostenak baloratzea.
- Laborategi jakin baterako hondakinak biltzeko prozedurak baloratzea.
- Ikasleek "in situ", laborategian bertan burututako lana ebaluatzea.
- Gai desberdinei buruzko eztabaidetan norberak eta taldeak egindako parte-hartzea ebaluatzea.
- Aurkeztutako prozedura komuna eta prozedura burutzeko orduan izandako inplikazio-maila ebaluatzea.
- Ahozko zein idatzizko, banakako zein taldeko erakusketen sintesi- eta orokortze-maila baloratzea.

### EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK


- Hondakinei buruzko oinarritzko lege-betekizunak ulertzea, bereziki jardueran ezarriko direnak.
- Hondakinei buruzko oinarritzko lege-betekizunak laborategi jakin batean ezartzea.
- Ingurugiro-prozedurak lantzeko teknika normalizatuak ulertzea eta ezartzea.
- B21A programaren jarraibideak eta metodologia ulertzea, eta ekonomia-garapen jasangarriaren eredu batean duen garrantziak ohar-tzea.
- Hiri bateko laborategi kimikoen edota biologikoen sortzen dituzten hondakinen arazoari dagokionez, lanerako metodoa ezartzea.
- Garaiz eta tajuz aurkeztea.
- Talde-lanean jardutea.
- Eztabaidetan parte hartzea.
- Irakasleak edota ikasleak ematen dituzten azalpenen aurrean interesa eta arreta azaltzea.
- Lan egiteko orduan zehaztasuna azaltzea. Antolamendua eta txukuntasuna.
- Autonomia eta erantzukizuna.
- Analisirako eta kritika arduratsua egiteko gaitasuna.
- Ikuspegi orokorra: toki-esparrutik orokorrera, eta alderantziz.
- Puntualtasuna eta bertaratzea.



a

## 5. jarduera



<p><b>IZENBURUA</b></p> <p>Zer gertatzen da gure ingurunekeo laborategietako hondakinekin?</p>	<p><b>KOKAPENA</b></p> <p>Ikastetxekeo eta ingurunekeo laborategiak</p>	<p><b>KALKULATU DEN DENBORA</b></p> <p>3 ordu</p> 
--	---	---

**HELBURUAK**

- ☞ Analisi-prozesuetan edota kontrol kimiko edota biologikoen prozesuetan sortutako hondakinak identifikatzea, ebaluatzea eta erregistratzea.
- ☞ Dagokion ingurugiro-legeria ezartzea.
- ☞ Ingurugiroaren babeserako norik bere eta taldeko ekintzak proposatzea.

**GARAPENA**

Ikasleek, bikoteka, hiriko analisi kimiko edota biologikorako laborategi desberdinetarako, publikoak zein pribatuak, hondakinak biltzeko plan bat landu behar dute. Horretarako, jarraian azaltzen diren zereginak burutu beharko dituzte:

**Laborategi bat aukeratzea, jarraian azaltzen diren kategorietako bateko laborategia:**

- Industria-sektoreko pribatua.
- Zerbitzuen sektoreko pribatua.
- Udal-laborategi publikoa.
- Eusko Jaurlaritzako laborategi publikoa.
- Estatuko laborategi publikoa.
- Europako laborategi publikoa.

**Apirilaren 21eko 10/1998 Legea, Hondakinei buruzkoa (1998ko apirilaren 22ko BOE) berrikustea, bereziki jarraian azaltzen diren atalei dagokienez:**

- Administrazio-gaitasunak ("Arau Orokorrak" I. Izenburuko II. Atala).
- Hondakinak sortzen dituzten produktuak merkaturatzean sortzen diren betebeharrak (II. Izenburua).
- Hondakinak, ekoiztea, edukitzea eta kudeatzea (III. Izenburua).
- Ikuskapena eta zaintza. Administrazio-erantzukizuna eta araudi zigortzailea (VI. Izenburua).
- Hondakinen kategoriak (Legearen Eranskina).

**Aukeratu den laborategian, analisi- edota kontrol-prozesuan barna sortutako hondakinak identifikatzea, hondakin bakoitzerako hondakinaren fitxa bat landuz, non jarraian adierazten dugun informazioa azalduko den:**

- Substantziaren izena:  
Bai izen teknikoa, bai erabiltzen diren izen arruntak edo betiko izenak ere.

- Hondakina osatzen duen/duten konposatuaren edo konposatuen formula kimikoa:  
Formula behar den neurrian garatuko da, beste konposatu batzuekin izan ditzakeen elkarreraginak aurreikusteko, eta neutralizaziorako ezar daitezkeen tratamendu kimikoak diseinatzeko.
- Ezaugarri fisikoak:  
Baldintza normaletan duen egoera (solidoa, likidoa, gasa).  
Kanpo-itxura (kolorea, distira, solidoen kasuan egitura kristalinoa).  
Purutasun- edo biskositate-maila.  
Usain eta zapore bereziak.  
Dentsitatea.  
Fusio-puntua, irakite-puntua eta izozte-puntua.  
Giro-tenperaturan, ereduako disolbatzaileetan, bai ez-organikoetan (ura), bai organikoetan ere (azetonak, etera, kloroformoa, eta abar), disolbagarritasuna (edo nahaskortasuna, dagokionaren arabera).  
Erretzeko gaitasuna.
- Ezaugarri kimikoak:  
Izaera azidoa edo oinarritzkoa.  
Beste konposatu batzuekin egin daitezkeen konbinazio kimiko garrantzitsuak, inguru-giro-ikuspegitik.  
Aurkako giro-baldintzetan egonkortasun kimikoa.
- Toxikotasuna:  
Bai gizakiarentzat bai animalientzat eta landareentzat ere. Une honetan, asimilazio-bidea adierazi behar da (ingestioa, arnasketa, zurgapen epiteliala, eta abar), baita toxikopenik gertatuz gero ezarri beharreko larrialditako tratamendua adierazi ere.
- Substantziak uretan zein atmosferan gehenez izan dezakeen kontzentrazioa, substantziak ekosistema arriskuan jartzeko arriskua egon baino lehen.
- Lantzen ari garen berariazko hondakinarentzat tratamendu-mekanismo egokienak:  
Tratamendu kimikoak (oxidazioa, neutralizazioa, ...).  
Tratamendu fisiko-kimikoak (distilazioa, osmosia, errausketa).  
Tratamendu biologikoak.

**Identifikatutako hondakinak biltzeko plan baten proposamena egitea, prozedura normalizatuaren bitartez, UNE-EN-ISO 14001 Arauaren arabera, Ingurugiroa Kudeatzeko Sistemai buruzkoa (IKS), jarraian azaltzen diren atalak biltzen direlarik:**

- Xedea.
- Eragina.
- Definizioak.
- Lanaren garapena
- Funtzioak eta erantzukizunak.
- Erlazionatutako dokumentuak.
- Eranskinak (erregistroaren egoera-orriak).

**Eragindako laborategian plana aurkeztea eta guztion adostasunarekin plana onartzea.**

**Gelan, diseinatu diren planen inguruko eztabaida egitea; irakaslea izango da moderatzailea, eta ahal izanez gero, kanpoko teknikarien parte-hartzea lortu behar da; eztabaidan azaltzen diren puntu komunak jaso eta plan bateratu batean idatziko dira, ondoren eskumeneko Administrazioan aurkezteko (hondakin arriskutsuak (HA) badira Eusko Jaurlaritzan, eta beste kasuetan Udalean).**

**Aipatu planak garapen jasangarriarekin duen erlazioa, eta toki-mailan XXI Agendarekin inplikatu ote daitezkeen zehaztea, (Bertako XXI Agenda B21A).**



## 6. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
Ingurugiroaren Gaineko Praktika Egokiak azaltzen dituen Kode bat lantzea	Gela, laborategia eta etxea	1, ½ ordu

### LANERAKO HELBURUAK

- Nork bere eta taldeko jarduteko puntu kritikoak identifikatzea.
- Laborategian sortzen diren hondakinak, egiten diren isurketak eta igorpenak minimizatzeko edo tratatzeko gomendioak definitzea.
- Hartu beharreko neurriak finkatzea eta analisi-prozeduretan biltzea.
- Gainontzeko ikaskideen artean banatzea.

### BALIABIDEAK

- INSHT arau teknikoak (Biltegiaketa, material arriskutsuak).
- 822/1993 ED, LPEei printzipioei buruzkoa.
- 2043/1994 ED, LPEen ikuskapenari eta egiaztatzeari buruzkoa.
- 93/112/EB aztertaraua, 91/155/EB aztertaraua aldatzen duena, non prestakin arriskutsuei buruzko berriazko informazio-sistemaren modalitateak definitzen eta finkatzen diren.

### METODOLOGIA

Ikasleek, bikoteka, "Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokien" Kode bat landu behar dute, aurreko jardueretan izandako esperientzian eta egindako gogoetan oinarrituta. Horretarako, jarraian azaltzen den eskemari jarraituko zaio:

- 1) Diseinua (laborategiaren inguruko ikuspegi orokorra).
- 2) Materialen hornikuntza.
- 3) Inbentarioen kontrola.
- 4) Material eta erreaktiboaren biltegiatzea eta manipulazioa.
- 5) Analisi-prozesuak.
- 6) Prebentziozko mantentzea.
- 7) Hondakinak bereiztea.
- 8) Garbiketa-operazioak.

Ondoren, landutako Kodeei buruzko eztabaida antola daiteke gelan, irakasleak moderatuko duena, eta bertan Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokien Kodeari buruzko iritzi desberdinak elkartuko dira, eta Praktika Egoki horiek ez betetzeagatik edo ez ezagutzeagatik sor daitezkeen arazoak planteatuko dira.

**KODEAREN ADIBIDE BAT HONAKO HAU IZAN DAITEKE****1) Diseinua**

- Ekipoek duten kokapen fisikoa eta ekipoak segurtasunerako eta mantentze-operazioetarako egokiak ote diren aztertzea.
- Ditugun instalazioetan sortutako hondakinen, egindako igorpenen eta isurketen kantitatea eta toxikotasuna ebaluatzea.

**2) Hornikuntza**

- Arrisku eta toxikotasun gutxiago duten materialak/erreaktiboak erabiltzeko aukera aztertzea, hala nola TLV gehiago, lurrinaren presio txikiagoa, sukoitasun-tenperatura handiagoa, eta abar.
- Erabilitako erreaktiboan aniztasuna estandarizatzea, bereziki organikoak, eta kantzerigenotzat jotzen direnak saihestuz.
- Laborategiko hornitzaileek, gehiago erabiliko ez diren erreaktiboak onartzea negoziatzea.
- Berriro erabili ahal diren ontziak erabiltzea, ahal den guztietan, dagokien araudiak errespetatuz.

**3) Inbentarioen kontrola**

- Stock-ean dagoen erreaktibo-kantitatea murriztea, arriskuak eta iraungipenak, deskonposizioak, oxidazioak, eta abar saihesteko.
- Biltegiaraketa-denbora murriztea.
- Jada erabiltzen ez den erreaktibo-kantitatea minimizatzea.
- Hondakin, isurkin eta igorpenen sortzeari dagokionez eta horien gastuei dagokienez, datuen erregistro bat egitea, ahal den guztietan, baita biltegiatuta dauden substantzien ihes eta isurketei dagokienez ere.

**4) Materialak eta erreaktiboak biltegiatzea eta manipulatzeko**

- Ihes eta isurketa guztien eta horien gastuen txostenak lantzea.
- Erreaktiboan biltegiaren mantentze-prozedura bat ezartzea.
- Ontziak ez pilatzea, hartara errazago aurkitu edota ikuskatu ahal izateko.
- Materialen biltegiaraketa, tratamendu eta erabilerarako jarraibideak zehaztea, hornitzaileen jarraibideei jarraiki.
- Ontzi guztiei etiketa jartzea, erreaktiboaren izena eta mota, prestatu zeneko eguna, iraungitasuna, osasunarentzat eta ingurugiroarentzat dituen arriskuak, manipulatzeko arauak eta larrialdietako neurriak bertan zehaztuz.
- Erdi beteta dauden ontzi-kantitatea gutxitzea.
- Ontziak garbitu edo bota baino lehen, ondo hustu.
- Bateriaezinak diren produktu kimikoen arteko distantziak gordetzea.
- Produktu toxikoenak edo arriskutsuenak biltegiatzeko berariazko zonak egokitzea.
- Ontziak hermetikoki istea.
- Izan daitezkeen istripuak antzemateko eta kontrolatzeko prozedura formal bat ezartzea.
- Oso arriskutsuak diren erreaktiboentzat segurtasun handiko armairuak instalatzea.
- Biltegiatuta dauden produktuen informazio ekologikoa azaltzen duten fitxak lantzea (ikasleen atalean adibide bat azaltzen da).

**5) Análisi-prozesuak**

- Erreaktiboan toxikotasuna kontuan hartuko duten analisi-metodoak aukeratzea, baita sortzen diren hondakinak eta egiten diren igorpenak eta isurketak ere.
- Análisen plangintza egitea, erreaktiboan prestakuntza minimizatzeke eta horiek hobeto aprobeatzeko.

**6) Prebentziozko mantentzea**

- Aparatuaren eta ekipoaren mantentze-programa diseinatzea, hornitzaileen eta fabrikatzaileen laguntzarekin.
- Aparatu eta ekipoentzako argibide-orriak lantzea, non aparatuak eta ekipoak erabiltzeko, neurtzeko, egokitzeke eta garbitzeko baldintza egokiak deskribatuko diren.

**7) Hondakinak bereiztea**

- Hondakinak nahastea saihestea.
- Hondakin toxikoak eta ez-toxikoak bereiztea.



- Hondakin toxikoak, osagai nagusiaren arabera bereiztea.

### 8) Garbiketa-operazioak

- Hondakin toxikoak eta ez-toxikoak bereiztea. Garbitzeko beharra saihestea.
- Hondakin toxikoak eta ez-toxikoak bereiztea. Ingurugiroarentzako arriskurik gutxien duten agenteak aukeratzea (hondakinen eta igorpenen gutxieneko kantitatea sortuko dutenak, modu merkeenean, garbitasun-maila egokia eskainiz).

Ura dugu garbiketa-agente merkeena eta eskuragarrien duguna, eta agitazio mekanikoarekin edo ultrasonikoarekin batera erabili daiteke. Beste agente batzuk erabili behar badira, jarraian azaltzen den hurrenkera jarrai daiteke:

1. Ura edo Airea.
2. Bitarteko urratzailea, ura edo airea euskarri delarik.
3. Ur-disoluzioak, detergentekin.
4. Disoluzio alkalinoak.
5. Azidoak
6. Disolbatzaileak.

## EBALUAZIOA

### JARDUERAK

- “Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokien” Kodea lantzea, eta finkatu den egunerako ematea.
- Kodea lantzeko erabili diren irizpideak eta planteatu diren hipotesiak idatziz aurkeztea.

### EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Kodeko puntuak definitzeko orduan zorrotztasuna eta zehaztasuna.
- Prozesuaren eraginkortasunaren areagotzea baloratzea.
- Análisi-lanetan gizakiak egin ditzakeen akats ez ohartzea, baita horrek Ingurugiroarekiko eragin ditzakeen ondorioez ere.
- Sortutako hondakinen kudeaketa ekonomikoa kalkulatzeko jakitea.
- Izpiritu kritikoa garatzea.
- Kudeaketa egoki batera eta etorkizuneko belaunaldienganako erantzukizunera (elkartasuna, tolerantzia, lankidetzatza, eta abar), ego-kitutako balore berriak garatzea.

## JARDUERA GARATZEKO BEHAR IZANGO DIREN KONTZEPTUAK

“**Laborategiko Praktika Egokiak**” (LPE): antolamendu-sistemak dira eta horien baldintzapean egiten dira azterlanen plangintza, azterlanak, kontrolak, erregistroak eta aurkezpena.

Helburutzat, azterlan jakin bat burutu den bitartean lortutako datu guztien kalitatea eta osotasuna ziurtatzea du, bereziki entsegu toxikologikoetan.

“**Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokiak**”, hondakinen, isurketen eta igorpenen sor-kuntza minizatzea du helburu, eta ondorioz, prozesuaren eraginkortasuna eta ingurunearen babesa areagotzea.

**Ingurugiro-portaera:** antolamendu baten jardueren, produktuen eta zerbitzuen ingurugiro-efektu guztiak biltzen dira.





a

## 6. jarduera



<p><b>IZENBURUA</b></p> <p>Ingurugiroaren Gaineko Praktika Egokiak azaltzen dituen Kode bat lantzea</p>	<p><b>KOKAPENA</b></p> <p>Gela, labora- tegia eta etxea</p>	<p><b>KALKULATU DEN DENBORA</b></p> <p>1, 1/2 ordu</p> 
---	---	--

**LANERAKO HELBURUAK**

- ☞ Nork bere eta taldeko jarduteko puntu kritikoak identifikatzea.
- ☞ Laborategian sortzen diren hondakinak, egiten diren isurketak eta igorpenak minimizatzekeo edo tratatzeko gomendioak definitzea.
- ☞ Hartu beharreko neurriak finkatzea eta analisi-prozeduretan biltzea.
- ☞ Gainontzeko ikaskideen artean banatzea.

**GARAPENA**

“Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokiak”, hondakinak, isurketak eta igorpenak sortzea minimizatzekeo gomendioak biltzen ditu, eta ondorioz prozesuaren eraginkortasuna eta ingurugiroaren babesa areagotu egiten da.

Hartu beharreko neurriak antolamendu- eta funtzio-mailakoak dira, eta ez da aldaketa teknikorik edo inbertsio handirik egin behar. Aipatu neurriak kudeaketa-sistemaren prozeduretan eta jarraibideetan kontuan hartu behar dira.

Praktika hauek garrantzi handia dute laborategian, bertan eskuz makina bat prozesu burutzen baita, eta ondorioz, akatsak izateko probabilitate gehiago daude, beraz, jatorrian minimizatzekeo aukera gehiago dugu.

**1.- Etxean, jarraian aipatzen diren atalak dituen Kode bat landu behar duzu:**

1) Diseinua (laborategiaren inguruko ikuspegi orokorra).

.....

.....

.....

2) Materialen hornikuntza.

.....

.....

.....

3) Inbentarioen kontrola.

.....

.....

.....

4) Material eta errektiboen biltegiatzea eta manipulazioa.

.....

.....

.....

5) Análisi-prozesuak.

.....

.....

.....

6) Prebentziozko mantentzea.

.....

.....

.....

7) Hondakinak bereiztea.

.....

.....

.....

8) Garbiketa-operazioak.

.....

.....

.....

**Adibide moduan: substantzia bakoitzaren ingurugiro-informazioa azaldu eta aipatu informazioa azaltzen duten fitxa informatizatuak prestatu. Bil daitezkeen alderdiak honako hauek dira:**

#### MUGIKORTASUNA

- Ingurugiro-departamentuetan antolamendu ezaguna edo aurreikusi den antolamendua.

#### PROPIEDADES FÍSICO-QUÍMICAS

- Azalerako tentsioa.
- Adsortzioa / desortzioa.
- pH.
- Fusio-puntua eta irakite-puntua.
- Sukoitasuna.
- Disolbagarritasuna.

#### DEGRADATZEKO GAITASUNA

- Degradazio biotikoa eta abiotikoa.
- Degradazio aerobioa eta anaerobioa.
- Iraunkortasuna.

#### METAKUNTZA

- Metakuntza-potentziala.
- Biohedapena.



### EPE LABURREAN ETA LUZEAN ONDORIOAK

- Ekotoxikotasuna:
  - Ur-organismoak.
  - Lurzoruaren organismoak.
  - Lurreko landareak eta animaliak.
- Aurkako beste zenbait alderdi:
  - Ozonoa agortzeko potentziala.
  - Ozono fotokimikoa sortzeko potentziala.
  - Planeta berotzeko potentziala.
  - Hondakin-urak tratatzeko zentralen efektua.

**2.- Ondoren, landutako Kodeei buruzko eztabaida antola daiteke gelan, irakasleak moderatuko duena, eta bertan Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokien Kodeari buruzko iritzi desberdinak elkar tuko dira, eta Praktika Egoki horiek ez betetzeagatik edo ez ezagutzeagatik sor daitezkeen arazoak planteatuko dira.**





## 7. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
<i>Nola lagundu garapen jasangarria lortzeko?</i>	<i>Gela eta etxea</i>	<i>1,1/2 ordu</i>

### LANERAKO HELBURUAK

- Ingurugiroaren gaineko babeserako norik bere eta taldeko ekintzen plangintza egiten ikatea, bakoitzari dagokion esparruan.
- Diziplinen arteko eta diziplinatzeko lanerako ekipoak sortzen sustatzea, inguruneke **Garapen Jasangarriari** laguntzeko irizpideak eta metodologiak ezarri ahal izateko.

### BALIABIDEAK

- ◆ Toki Agenda XXI egiteko Plangintza–gidaliburua. **Garapen Jasangarria** lortzeko egin beharreko plangintzarako sarrera.
- ◆ Toki Agenda XXI Plangintzarako Europako Gida.
- ◆ 93/C 123/01 Erabakia, Kontseiluarena eta Gobernuetako ordezkariena, ingurugiroa eta **Garapen Jasangarria** bi esparruetako politikari eta jarduteko Programa bati buruzkoa (EEko Egunkari Ofiziala, 138. zk. 1993ko maiatzaren 17).

### METODOLOGIA

Laborategiarentzat, ingurugiro–helburu eta –xedearen prozedura bat lantzea, aurreko jardueren prozedurak egiterakoan erabili den metodologia berari jarraiki.

Agenda XXI–ren helburuak eta xedeak aurkeztea, eta laborategiarentzat egindako prestakinekin duen lotura.

EBeko “**Garapen jasagarriarantz**” (1992–2000) V. programako ingurugiro–estrategien laburpena prestatzea.



a

## 7. jarduera



<b>IZENBURUA</b> Nola lagundu garapen jasangarria lortzeko?	 <b>KOKAPENA</b> Gela eta etxea	<b>KALKULATU DEN DENBORA</b> <b>1, 1/2 ordu</b> 
--	---	---

**HELBURUAK**

- ☞ Ingurugiroaren gaineko babeserako norik bere eta taldeko ekintzen plangintza egiten ikastea, bakoitzari dagokion esparruan.
- ☞ Diziplinen arteko eta diziplinanzeko lanerako ekipoak sortzen sustatzea, inguruneko garapen jasangarriari laguntzeko irizpideak eta metodologiak ezarri ahal izateko.

**GARAPENA**

Gara daitezkeen ekintzak identifikatzea, helburutan eta xedeetan gauzatzeko.

Kontserbaziorako Mundu Estrategia (KME), eta ekintza pertsonalak edota taldekoak, gure ingurunean errealitate bihurtzeko gara ditzakegunak.

BIZITZAREN ETORKIZUNA ESTRATEGIAREN PRINTZIBIOAK	PRINTZIBIOA EGUNEROKO BIZITZAN GAUZATZEA	ZER EGIN DAITEKE PRINTZIBIOA EGITATE ETA EKINTZA BIHURTZEKO?
Izadia errespetatzea.		
Bizi-kalitatea hobetzea.		
Lurraren bizitasuna eta aniztasuna kontserbatzea.		
Berritzen ez diren baliabideak ekonomizatzea.		
Planetak egoera jasateko duen gaitasuna errespetatzea.		
Nork bere jarrerak eta ohiturak aldatzea.		
Erkidegoei nork bere ingurugiroa administratzeko baliabideak ematea.		
Garapena eta kontserbaziorako hurbilketa integratua egiteko esparru nazional bat sortzea.		
Mundu-mailako ituna sustatzea.		

Gogoeta egin ondoren, laborategiarentzat ingurugiro-helburuen plan bat landu behar da, jarraian azaltzen den prozeduran oinarriturik:

#### LABORATEGI BATEAN INGURUGIRO HELBURUEN ETA XEDEEN PLANGINTZARAKO PROZEDURA


**Helburua:** Prozedura honen helburua, ingurugiro-helburuen eta -xedearen plangintza egiteko prozesuari dagozkion etapak eta erantzukizunak zehaztea da.

**Hedapena:** Laborategian ingurugiro-helburuak eta -xedeak.

**Ingurugiro-xedeak:** jarduteko betekizun zehatzak dira, ahal den guztietan koantifikatuak, erakundearen edo erakundearen zati batean ezar daitezkeenak, eta jatorria ingurugiro-helburuetan dutenak, eta gainera, aipatu helburuak lortzeko bete behar direnak.

**Ingurugiro-helburuak:** erakundeak ingurugiro-jarduerari dagokionez lortu nahi dituen helburuak dira, kronologikoki programatzen direnak eta ahal den neurrian koantifikatzen direnak.

**Garapena:**







FUNTZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Etapa	Arduraduna	Lankidea
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		

**ERREGISTRO-FORMATUA: URTEKO INGURUGIROA KUDEATZEKO PLANA**

Ikastetxearen Ingurugiroa Kudeatzeko Plana .....  
 Urtea: .....

Helburua	Xedea	Arduraduna	Data	Adierazlea	Aurrekontua	Oharrak

Laborategiko Zuzendaritzaren sinadura eta data

Landu ondoren, helburu komunekin lotura duten puntuak ondorioztatu behar dituzu, eta horretarako EBeko V. Programako eta Agenda 21-eko "Ingurugiro-estrategiak" hartuko dira oinarritzat.

Laborategiko helburuak eta xedeak, eta ingurugiro-mailako arazoekin duten lotura, planeta-mailan (MAEP)

Arazoa (MAEP)	Laborategiaren helburuak	Analisia: Helburu honen bitartez arazoa gutxitu al daiteke? Zergatik?
Berotze orokorra, gasen metakuntzagatik, berotegi-efektuarekin.		
Ozono geruza estratosferikoa ahultzea.		
Demografia-hazkuntza eta beharrak. Baliabideen kontsumoa, ekosistemei eraso, eta abar.		
Uraren poluzioa.		
Euri azidoa.		
Basamortutzea.		
Bioaniztasuna galtzea.		
Hondakinak.		
Lurzoruen poluzioa.		



## UNITATE HONETARAKO LEGE-ERREFERENTZIAK

Legeria desberdinak ezarriko dira, Laborategiaren datuen aniztasunaren arabera. Gehien erabiliko diren legeriak honako hauek dira:

- 📖 EHK (94/3/EE Erabakia): DOCE, L5, 1994/1/7.
- 📖 2216/1985 ED (BOE, 284. Zk., 1985/11/27).
- 📖 1078/1993 ED (BOE, 216. Zk., 1993/9/9).
- 📖 668/1980 ED (BOE, 90. zk., 1980/4/14).
- 📖 93/326/ Erabakia: DOCE, L129 zk., 1993/5/27.
- 📖 10/1998 Legea, hondakinei buruzkoa: BOE, 96.zk., 1998/4/22.
- 📖 952/1997 ED: BOE, 160.zk., 1997/7/5.
- 📖 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Plan Orokorra
- 📖 3485 ED (BOE 1984/02/20), Produktu Kimikoen Biltegiatzeari buruzkoa
- 📖 833 ED, 1975/02/06 (BOE 1975/04/22), Ingurune Atmosferikoaren Babesari buruzkoa.
- 📖 822/1993 ED, LPEei buruzkoa: BOE, 128.zk., 1993/5/29.
- 📖 2043 ED, 1994/10/14 (BOE 1994/11/24), LPEen ikuskapenari eta egiaztatzeari buruzkoa.
- 📖 Batzordearen 93/67/EEE Aztertaraua, 1993ko uztailaren 20koa; Kontseiluaren 67/ 548/ EEE Aztertarauen jakinarazten diren substantziek gizakiarengan eta ingurugiroan eragin ditza-keten arriskua ebaluatzeko printzipioak zehazten dituena.
- 📖 93/112/EE Aztertaraua, 91/155/CE Aztertaraua aldatzen duena, eta prestakin arriskutsuei buruzko berariazko informazioa emateko sistemako modalitateak definitzen eta finkatzen dituena.
- 📖 93/C 123/01 Erabakia, Kontseiluarena eta Gobernuko ordezkariena, ingurugiroaren eta **Garapen Jasangarriaren** inguruko politikarako eta jarduteko Europako Elkarteko Programari buruzkoa. (EBeko Aldizkari Ofiziala, 138. zk., 1993ko maiatzaren 17koa).





# Baliabide didaktikoren gida

## 6. BALIABIDE DIDAKTIKOEN GIDA

### MATERIAL BIBLIOGRAFIKOA

- COMISIÓN EUROPEA. DG XI. (1996). *Legislación comunitaria relativa al medio ambiente. Volúmen 3: Productos químicos, riesgos industriales y Biotecnología*.  
Brussela. Europako Komunitateen Argitalpen Ofizialen Bulegoa.
- LUIS DE LA FUENTE RAMIREZ Y JOSÉ FRUTOS GARCÍA GARCÍA. (1995). *Toxicología y seguridad química: Evaluación y gestión del riesgo químico*. Comunidad de Madrid, Consejería de Sanidad y Servicios Sociales.

*Testu honetan substantzia kimikoez sortutako arriskuen ebaluazioa egiten da, sanitatearen eta ingurugiroaren ikuspegitik. Ezagupen toxikologikoetan oinarritzen da kimika eta ingurugiroari loturiko segurtasun-arazoak konpontzeko.*

*Bereziki azpimarragarriak dira honako bi atal hauek: "Caracterización toxicológica de residuos industriales y de vertidos de sustancias peligrosas" eta "Toxicología ambiental de metales".*
- MARIANO SEOÁNEZ CALVO. (1998). *Ecología industrial: Ingeniería medioambiental aplicada a la industria y a la empresa. Manual para responsables medioambientales*.  
Mundi prensa.
- MARIANO SEOÁNEZ CALVO. (1998). *Medio Ambiente y Desarrollo: Manual de gestión de los recursos en función del medio ambiente*.  
Mundi prensa.

*Testu honek nahiz aurrekoak ingurugiroari loturik dauden alderdi asko aztertzen dituzte modu argi eta laburrean. Edukia nahiko eskematikoa da eta oso ongi antolatuta dago, kasurik gehienetan gehiegi sakontzea saihesten delarik. Bi liburu hauek egileak ingurugiroari buruzko gaitan duen esperientzia eta ingeniartzaren alorretik planteatutako arazoei buruz duen ikuspegia azaltzen dute.*
- MINISTERIO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO (1993). *Manual MEDIA. Minimización Económica del Impacto Ambiental*.

*Eskuliburu honek, jaulkipen eta hondakinak minimizatzeko neurriak, teknikak eta prozedurak bilatzera orientatuta dagoen metodologia azaltzen du. Ingurugiro-arazoak identifikatzen lagunduko duten lan-fitxak eta erregistro-orriak sistematikoki lantzen laguntzen du.*

*Lau ale ditu: 1.ak metodologia deskribatzen du, 2.ak ereduak lan-fitxak aurkezten ditu, 3.ak aplikatzeko adibide praktikoa bat barne hartzen du eta 4.ak enpresa desberdinetako kasu errealek azaltzen ditu.*
- NICOLA HEWIT (1998). *Guía Europea para la Planificación de las "Agendas 21 Locales"*.  
Bakeaz/ Eusko Jaurlaritza.

*Toki-eremuan 21 Agendaren irizpideak aplikatzeko gida praktikoa da. Udalerriko ingurugiro-ekintzarako plan sistematiko bat lantzeko lan-metodologia bat proposatzen du. Informazioa eta adibide praktikoa eskaintzen ditu tokiko ingurugiro-arazoak hedatzeko, hiritarren partehartzea barne hartzen duten prozedurak garatzeko eta toki-eremutik ingurugiroa kudeatzeko eraginkorrak diren tresnak aplikatzeko.*
- ICLEI (CONSEJO INTERNACIONAL PARA INICIATIVAS AMBIENTALES LOCALES). (1996). *Manual de Planificación para la agenda 21 Local. Una introducción a la planificación para el desarrollo sostenible*.

■ **Kimika–segurtasunerako nazioarteko fitxak.** INSH

*Substantzia kimikoei buruzko informazio higieniko–sanitarioa eta segurtasun–informazioa argi eta garbi biltzen duten fitxak. Nazioarteko organoek landu dituzte:*

- *Ingurugiroari buruzko Nazio Batuen Programa.*
- *Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE/OIT)*
- *Osasunaren Mundu Erakundea (OME/OMS)*

*Beren helburua substantzia kimikoek sortutako osasun eta ingurugirorako arriskuen ebaluazioak egitea da.*

■ **Panreac merkataritza–etxearen segurtasun–fitxak.**

*Fitxa hauetan, erabiltzaileak bere katalogoko produktu bati buruz behar duen informazioa biltzen da.*

■ **PANREAC.** (1997). *Seguridad en laboratorios químicos.* Panreac. 83 páginas

*Merkataritza–etxe batek (Panreac) egina den eta errektiboen eta laborategi–materialen banaketan espezializatuta dauden dendetan dohainik hornitzen den eskuliburua da. Batez ere errektiboen erabilerara eta efektuen ondoriozko lan– eta ingurugiro–segurtasunaren gaiari buruzko edukiak aztertzeke balio du.*

■ **IHOBE.** (1997). *Catalogo de Reciclaje Industrial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.* Bilbo. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.

*IHOBE, SA – Ingurugiroa Kudeatzeko Sozietate Publikoak landutako katalogo honek, zenbaki–ordenaren arabera Europako Hondakin Katalogoa (EHK) eta ordena alfabetikoaren arabera hondakinak, birziklatzaileen fitxak, biltzaileen fitxak eta hondakin–mota bakoitzerako kudeatzaileen fitxak bilatzeko plantilak barne hartzen ditu.*

■ **IHOBE.** (1998). *1998ko Ingurugiro Egoera Euskal Autonomia Erkidegoan.* Bilbo. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.

*Liburu honetan ingurugiroaren egoera deskribatzen da, arazoak eta beren kausak, bai eta gure ingurugiroa babesteko hartutako erantzunak edo ekintzak ere.*

*II. zatian (ebaluazioa eta arazoak) airea, ura eta itsasertza, lurzorua, bioaniztasuna, hondakinak, zarata, arrisku natural eta teknologikoak eta hiriko ingurugiroa aztertzen dira.*

*III. zatian (giza–jarduerak) energia, industria, lehen sektorea, garraioa eta turismoa garatzen dira.*

■ **IHOBE** (1998). *Euskal Industriarentzako Ingurugiro Legeiaren Eskuliburu Praktikoa.* Bilbo. Eusko Jaurlaritza. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.

*Industria txiki eta ertainetan pentsatuz landu den ingurugiro–legeriari buruzko eskuliburua. Ingurugiroa enpresen eguneroko kudeaketan barneratzen lagunduko duen tresna arin eta erraza izan nahi du.*


■ **CLEMENS, R. B.** (1997). *Guía Completa de las Normas ISO 14000.* Bartzelona. Gestión 2000 S.A.

*Lantzen dituen alderdirik garrantzitsuenak ISO14000 arauaren sorkuntza eta egiturari, konpainia baten kudeaketa–sistamarako gidarauei eta ISO 9000 arauekin duen erlazioari loturik daude.*

■ **EUSKO JAURLARITZAREN HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA** (1994). *Guía Práctica del Medio Ambiente.* Madril. Ecoiuris,S.A.

*Ondoko kapitulu hauek bereziki interesgarriak dira:*

- *Hiri–hondakin solidoen sorkuntza eta kudeaketa.*
- *Ingurugiro–kalifikazioa behar duten jarduerak.*
- *Zarata eta bibrazioen sorkuntza.*
- *Hondakin toxiko eta arriskutsuen sorkuntza eta kudeaketa.*



- **SEOANEZ, M.** (1995). *El gran Diccionario del medio ambiente y de la contaminación*. Madril. Mundi-Prensa.

- **BROWN, L. Y OTROS.** *La situación del mundo. (Urteko Txostena)*. Bartzelona. Apóstrofe.

*Worldwatch Institute erakundeak gizarte eusgarrirantz egiten den aurrerapenari buruz landutako txostena da.*

*Txosten hau urtero argitaratzen da eta planetan giza-garapenari loturik dauden ingurugiro-arazo nagusiei buruz egindako ikerketen emaitzak biltzen ditu.*

- **VON WEIZSÄCKER, E.U., LOVINS, L.H. Y LOVINS, A.B.** (1997) *Factor 4. Duplicar el bienestar con la mitad de los recursos naturales*. Bartzelona. Cículo de Lectores.

*Erromako Klubarentzat egindako txosten hau garapen eusgarriari egin zaion ekarpenik berrien eta garrantzitsuena da. Honi dagokionez, egileek ondokoa diote: "aurrerapen teknologiko eta zibilizatzaileari norabide berria eman nahi diogu, ekologiarekin eta munduko ekonomiarekin erlazionatuta dauden arrazoiengatik norabide-aldaketa bat egitea guztiz ezinbestekotzat jotzen baitugu. Munduko biztanleriak ezin du natur baliabideak xahutzen jarraitu".*

*Berrogeita hamar adibideren bitartez, egungo produkzio-prozesuetan irizpide ekologikoak sartzeak mozkinen igoera garrantzitsua dakarrela egiaztatu nahi dute.*

## BIDEOAK

- *Gestión de residuos en los laboratorios.*

AUTOR: EUROPEAN SCHOOL VIDEO. MULTIMEDIA APPROACH. (1996).

REFERENCIA: P-065-AV2-VE.

Gabinete de Estudios Cinematográficos S.L.

Apto de Correos 9595. 08080 Bartzelona.

Tel/Fax: 938940115

*55 minutuko bideo-zinta batez osatutako ikus-entzunezko materiala. Ingurugiroaren babesari loturiko jarrerazko balioak sustatzen laguntzen du, eta gainera laborategian sortutako hondakinen kudeaketa zuzenari buruzko soluzioak ematen ditu. Interesgarria da, baina luzeegia da ikasleentzako, eta beraz modu selektiboan tratatu behar da, beste jarduera batzuekin konbinatuz.*

- *La Seguridad en los laboratorios.*

AUTOR: EUROPEAN SCHOOL VIDEO. MULTIMEDIA APPROACH (1996).

REFERENCIA: P-064-AV2-VE.

Gabinete de Estudios Cinematográficos S.L.

Apto de Correos 9595. 08080 Bartzelona.

Tel/Fax: 938940115.

*55 minutuko bideo-zinta batez osatutako ikus-entzunezko materiala, laborategian osasunari eta poluzioari buruzko prebentzioari loturiko guztia garatuz. Behar bezala tratatuta, laborategi bateko produktu eta erreaktiboen gastu, kontsumo eta tratamenduari eta ingurugiroan duen eraginari dagokionez jarrera eusgarriak sustatu eta indartuko dituzten jarduerekin konbina daiteke.*

## CD-ROM

□ *Segurtasun–datuen fitxak*

- MECK (1997).
- PANREAC (1999).
- SCHARLAU (1999).

*Merkataritza–etxe horiek dituzten erreaktibo kimiko guztien ezaugarriak eta propietateak deskribatzen dituzte, eta bertan ingurugiroarentzat eta pertsonentzat duten arriskugarritasuna eta inpaktua aipatzen da, bai eta haienganako segurtasun–neurriak eta prebentzioak ere.*

## INTERNETEKO HELBIDEAK

- ⌘ *Europako ingurugiroaren agentzia.*  
<http://www.eea.dk>
- ⌘ *Europako Batzordearen ingurugiroari buruzko dokumentuak.*  
<http://europa.eu.int/comm/dg11/docum/index.htm>
- ⌘ *Aula Verde. Revista de Educación Ambiental de la Junta de Andalucía.*  
<http://www.cma.junta-andalucia.es/publicas/aulaverde/aulaverde.htm>
- ⌘ *Ingurugiro–hezkuntza. Quercus Sarea.*  
<http://www.quercus.es/EducaAmbient/>
- ⌘ *Eusgarritasuneranzko hiri eta herrien sarea (Katalunia).*  
<http://www.diba.es/xarxasost/xrxmarcscst.htm>
- ⌘ *Ekoindustria.*  
<http://www.ecoindustria.com/index.html>
- ⌘ *Recycler's World.*  
<http://www.recycle.net/recycle/index.html>
- ⌘ *Ekonomia Ekologikoaren Sozietate Europarra.*  
<http://www.c3ed.uvsq.fr/esee/>
- ⌘ *ADENA WWF, ingurugiroaren egoera.* Inglesez.  
<http://www.panda.org>
- ⌘ *European Foundation for Quality Management.* Inglesez.  
<http://www.efqm.org>
- ⌘ *Ministerio de Medio Ambiente.*  
<http://www.mma.es>
- ⌘ *Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutua.*  
<http://www.mtas.es/insht>





# 1. eranskina: IHOBE



## INGURUMENAREN KUDEAKETA ERAKUNDEEN IKUSPEGITIK

### Zer da IHOBE?

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailera atxikitako Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publiko bat da.

**Zeregina:** giza jardueraren garapen–esparru orotan ingurumenaren kudeaketa zuzena lortzea.


**2001 baliabideak:** 38 lagun, eta 2.700 milioiko aurrekontua.

**Sailak:** Ekoizpen Garbia, Ingurumen Azpiegiturak, Lur Poluituak.

IHOBE S.A. sozietate publikoaren zereginak, nagusiki honako esparru hauetara bideratzen dira:

- Euskal industria,  
ingurumenaren kudeaketaren eta ekoizpen garbiaren bitartez ingurumenaren gaineko eragina murriztea.
- Euskal administrazioa,  
lur poluituen kudeaketa erraztea, laguntza moduan ingurumen–azpiegiturak eraikitzea, 21 Toki Agenda sustatzea eta Ingurumen Sailari bere ingurumen–estrategiaren plangintza egiten laguntzea.
- Gizartea,  
herritarrengan eragina duten ingurumen–mailako berariazko inpaktuak eta arazoak murriztea (HCH...).

Horretarako, lehenik eta behin industriaren poluzioa prebenitzeko, lur poluituak bereizteko eta ingurumenaren babesa ziurtatzeko eta hobetzeko, ingurumen–azpiegiturak ezarri behar dira, eta xede horrekin, ekimenen plangintza eta garapena gauzatzeko hainbat jarduera garatzen da; hori guztia hiru jarduera–arlotan antolatzen da.



Sozietate Publiko honen zereginak euskal industriaren lehiakortasuna sendotzera zuzentzen dira, eta horretarako, ingurumen–faktorea behar bezala ulertu eta bereganatu behar da; gainera, sozietate publiko honek enpresa–sektorea sustatu nahi du, hartara euskal industria–sareak kontzeptu, ekipo eta teknologia garbiei dagokienez dituen eskakizunei erantzuteko. Hortaz, IHOBE, S.A. sozietate publikoaren helburua da ingurumen–egoera hobezina lortzea, eta xede horrekin lan egingo duen giza taldeak diziplina anitzetan lan egiteko gaitasuna eduki behar du, eta modu horretan lortuko da Euskal Autonomia Erkidegoaren ingurumen–arazoak konpontzea.

## A.- Zer eskaintzen dio IHOBE sozietateak Euskal Enpresari?

- **INFORMAZIO PRIBILEGIATUA.** Ingurumen Adierazleen Bankua eta industria-mailako ingurumenari dagokionez esperientzia aurreratuak.
- **INGURUMENAREN KUDEAKETA MODU ERAGINKORREAN EZARTZEA ENPRESETAN.** Lanabes eta metodo optimizatuak.
- **ENPRESAN ERABAKIAK HARTZEKO IRIZPIDEAK.** Ingurumenari buruzko argitalpen eta programa teknikoak.
- **KALITATE ZIURTATUA.** Adituen nazioarteko sarearen laguntza.
- **AURRE-ARAUAK.** Kontsulta eta Orientazio Zerbitzua. (IHOBE-LINE).
- **ENPRESA BAKOITZAREN PREMIEN ARABERAKO INGURUMEN-IRTENBIDEAK.**

### A1.- INGURUMENA KUDEATZEKO ZERBITZUA

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak sustatutako “1999–2001 Ingurumen Kudeaketa Sustatzeko Programaren” helburu nagusia da euskal enpresen ingurumen-inpaktua murriztea; 1999–2001 urteen bitartean 500 euskal enpresetan ingurugiroa kudeatzeko planak ezarriko dira.

IHOBE sozietateak orientabideak eskaintzen dizkie enpresei hondakinak murrizteko, eta xede horrekin Ekoizpen Garbiaren abantailak aurkezten ditu (poluzioaren prebentzioa, laneko baldintzen hobekuntza, ekonomia-etekinen areagotzea eta lehia-kortasun handiagoa).

#### TALDE ISO-14

IHOBE S.A. sozietateak dinamizatutako enpresa-talde bat da; helburu nagusia da ISO 14001 modu optimizatuan ezartzea, bai epeari dagokionez bai kostuari dagokionez, eta horretarako taldearen sinergia aprobetxatuko da.

#### EKOSCAN

Ingurumena hobetzeko lanerako plan bat da eta enpresaren lehenetsuneko arloetan ezartzen da. Hondakinak, igorpenak edo isurketak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainetara (ETEak) zuzentzen da, eta emaitza bezala ingurumenaren hobekuntza azkar lortzea eta ISO 14001era pixkanaka-pixkanaka hurbiltzea lortu nahi da.

Plan honen oinarrian ekonomia- eta ingurumen-mailako diagnosi aurreratu bat dago, eta enpresaren berriazko hobekuntza lortzeko talde batek parte hartzea sustatzen da.

Aldi berean, enpresako beste zenbait arlotan ere aplikatu daiteke plan hau, kalitate-sisteman bertan, edo ISO 14001 arauaren ziurtagirirantz pixkanaka-pixkanaka hurbiltzea sustatu daiteke.

### A2.- INGURUMEN-ORIENTAZIORAKO ETA -DOKUMENTAZIORAKO IHOBE-LINE ZERBITZUA


[www.ihobe.es](http://www.ihobe.es)

IHOBE sozietatearen zerbitzuei buruzko informazioa, eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren programei buruzko informazioa web-orri honetan dago.

Helbide honetan “Industria-birziklapenaren katalogoa” eta “Ingurumen-legeriari buruzko esku-liburua” lor daitezke, baita ISO 14001 araua duten enpresen zerrenda bat eta IHOBE sozietateak dohain banatzen dituen argitalpen gehienak ere (pdf formatuan).



# 1. eranskina: IHOBE



## IHOBE-LINE

Euskal enpresentzako ingurumen-informazioa emateko doako zerbitzua. Honako alderdi hauei buruzko informazioa lor daiteke:

- Enpresara zuzentzen den legeria.
- Dirulaguntzak.
- IKS (ISO 14001).
- Ekoizpen garbia (etekinak areagotu hondakinak murriztuz).
- Poluzioaren prebentzioa.
- Teknologia garbiak.
- Hondakinen kudeatzaileak.
- Hondakinen eta airera egiten diren igorpenen minimizazioa.
- Birziklapena.
- Ontziak eta enbalajeak.
- Zarrastelkerien murrizketa.
- Isurkinen tratamendua.

## ZERBITZU TELEFONIKOA (900150864)

Euskal enpresen galderei berehalako erantzuna ematen die. Zerbitzu honen ordutegia 9:00etatik 13:00etara da.

## INGURUMENARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Dokumentazio Zentroak ingurumenari buruzko bibliografia-baliabideak eskaintzen ditu.

## A3- PRESTAKUNTZA-ZERBITZUA ETA ATE IREKIAK

IHOBE sozietateak ingurumen-prestakuntzari dagokionez egiten duen eskaintza, enpresako ingurumen-esparruko zuzendari eta arduradunengana zuzentzen da, prestakuntza-mailako hainbat eskaerei erantzuteko. Hori dela eta, euskal enpresaren eskaera asetzeko eta ingurumena hobetzeko ekindako bidean laguntzeko, ISO-14001 Tailerra, Ate Irekiak eta Prestakuntza garatu dira beste zenbait erakunderekin batera, hala nola SPRI eta EUSKALIT. "Ate irekien" bitartez Euskal Herrian buru diren enpresek egindako esperientzietatik ikastea lortu nahi da, enpresa horietako zuzendaritza-taldeekin iritziak trukatu direlarik.

## A4- ENPRESARI LAGUNTZEKO ARGITALPENAK

### 4.1. INGURUMEN KUDEAKETARI BURUZKO ARGITALPENAK

#### "Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Birziklapenaren katalogoa"

Euskal industria, administrazio, elkarte, aholkularitza eta injinerutzetara zuzentzen den lanerako tresna bat da. Katalogoaren helburu nagusia da industriako hondakinak birziklatzeko bideak sustatzea, enpresei erabilgarri dauden baloralizazio-bideak ezagutzeko aukera emango zaielarik. Berreskurapen-bide bakoitzaren informazioarekin batera, baldintza tekniko eta ekonomikoak, berreskurapen-prozesuak eta beste hainbat alderdi ere aurkezten dira.

CDan eta web-orrian aurkituko duzu.

#### "Euskal Industriarako Ingurumen Legeriari buruzko Esku-liburu Praktikoa"

Esku-liburu honetan jarduera jakin batekin eta bere interpretazioarekin erlacionatutako legeria bereizteko hainbat jarraibide ematen dira. Enpresa-mailako betebeharrak zeintzuk diren zehazten dira, baita ingurumen-arlo bakoitzean dauden eskumeneko enpresak eta burutu beharreko kudeaketak ere.

Ingurumen-mailako legeria betetzea erraztu nahi da, eta erantzukizun zibil edo delitu ekologikoagatiko zigorrak aurreikusi eta saihestu nahi dira, eta bezeroen, hornitzaileen edo orokorrean gizartearen eskaerei erantzun nahi zaie.

#### 4.2. EKOIZPEN GARBIAREN ARGITALPENAK

Honako gida tekniko hauek landu dira:

- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Estaldura Elektrolitikoak.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Beroko galbanizazioa.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Moldeaketa-hondarrak burdinaren galdaketetan.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Altzairutegietako zepak.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Arrain Kontserbak.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Pinturak Karrozerietan aplikatzea.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Metalaren mekanizazioa.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Arte Grafikoen sektorea.

#### 4.3. INDUSTRIA SENTSIBILIZAZIOAREN ARGITALPENAK

##### “IHOBE ISO 14001 esku-liburua: ezarpenerako urratsak”

Ingurumen Kudeaketako ISO 14001 Araua ezarri nahi duten enpresentzako esku-liburu praktikoa. Lan honi esker ezarpen-prozesua arindu egiten da, formatua oso erabilgarria delako eta enpresa batean ISO 14001 araua ezartzeko beharrezkoa den dokumentazio osoa eskaintzen duelako.

##### “Ekoizpen Garbia Euskal Herrian”

Hiru txosten dira eta bertan biltzen da 100 enpresek baino gehiagok, IHOBE sozietatearekin batera, lankidetzak-neurriak martxan jartzeko jarraitutako prozesua. Ekoizpen Garbia lortzeko neurri zehatzak ezarri ondoren izandako emaitzak aurkezten dira, baita enpresa hauek lortu dituzten ingurumen- eta ekonomia-mailako hobekuntzak ere.

##### Industrien hedapenerako horma-irudiak eta materialak

Honako material hauek landu dira:

- Ekoizpen Garbiaren etekinak.
- Lurzoru poluituak.
- Nola garbitu hobeto piezak ura aurreztuz? Enpresarentzako aholku praktikoa.
- Hondakinak murrizteko 200 gomendio.
- Hondakinak minimizatzea errentagarria da.

##### Bideoak

- Ekoizpen garbia. Gure enpresen etorkizuna.
- ISO 14001, zure enpresarentzako aukera.
- Lurzoru poluituen kudeaketa. Zure udalerrarentzako erronka.



# 1. eranskina: IHOBE



## 4.4. BESTE ZENBAIT ARGITALPEN

“2000 Industria Ekobarometroa: euskal enpresaren ingurumenarekiko jarrera eta konpromisoa”

Honako txosten honen oinarrian Euskal Herriko 532 industria-enpresetan egindako galdeketa dago; galdeketaren helburu nagusia da euskal enpresak ingurumenaren aurrean agertzen duen jarrera, aurkitzen dituen oztopoak, hartzen duen konpromisoa eta garatzen duen jarduera zehaztea.

## B.- Zer eskaintzen du IHOBE sozietateak lurzoru poluituei dagokienez?

Helburu nagusia da lurren poluzioaren ondorioz sortutako arazoei irtenbide bat ematea, eta horretarako, kudeaketa-tresna desberdinak sortuko dira eta toki-administrazioei laguntza eskainiko zaie. Horrez gain, Lurzoru Poluituen Informazio Sistema eguneratuta edukitzea lortu nahi da eta lurra bezalako baliabide baten prebentzioa, ikerketa eta berreskurapena sustatu nahi dira.

### LURZORU POLUITUEN INFORMAZIO-ZENTROA: GEOIKER

Euskal Herriko Lurzoru Poluituen Informazio Sistema, toki-agintaritzen eta lurren jabeen edo erosleen eskura.

## C.- Ingurumen Sailburuordetzak zein ingurumen-azpiegitura sustatzen ditu IHOBE sozietatearen bitartez?

IHOBE sozietatearen helburu bat da ingurumenaren babesa eta hobekuntza ziurtatzeko azpiegiturak antolatzea.

### HONDAKINEN TRATAMENDURAKO BIRZIKLAPEN-PLANTAK:

- Erabilitako olioak, agortutako taladrinak eta erabilitako disolbatzaileak birziklatzeko zentro aurreratua.
- HCH puruaren tratamendurako planta.
- Pilen tratamendurako eta birziklapenerako planta (Recypilas).

### OLEAZ, ERABILITAKO OLIOEN ANALISIRAKO ZENTRO OFIZIALA

Bere lana da Euskal Autonomia Erkidegoan jatorria duten erabilitako olioek ibilbidea kontrolatzea. Laborategi honetan, urtean, erabilitako olioaren 10.000 Tm kontrolatzen dira.

### I+G INGURUMEN LABORATEGIA

Teknologien planta pilotuak eta beharrezkoak diren ingurumen-azpiegiturak ezarri baino lehen bideragarritasun teknikoaren eta ekonomikoaren azterketa.



## @ 2. eranskina: EKOINDUSTRIA



### EKOINDUSTRIA EUSKAL HERRIAN

Giza jarduera orok, eta bereziki industria-jarduerek, ingurugiroaren gaineko eragina izan ohi dute, izan ere natur baliabideak erabili, eraldatu egiten dira, eta azkenean, natur baliabideen hondakinen kondarrak geratzen dira.

Ingurugiroaren esparruan produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa-multzoa, Ekoindustria izenez ezagutzen dugu.

Gainontzeko industriak, ingurugiro-zerbitzuen eskatzaileak dira, eta aipatu industrietan ingurugiroarekin duten erlazioa, euren industria-politikan ingurugiro-mailako faktoreak kontuan hartzen dituzten unetik hasten da.

Ekoindustria dugu, gainontzeko industria-sektoreetan zehar hedatzen den eta aplikatzen den industria-sektore bakarra, Enpresa-Ingurugiroa erlazioari dagokionez irtenbideak eskainiz.


EAEn industria-tradizio luzea dugu, mende honetan barna garatu dena. Ondorioz, bi fenomeno osagarri sortu dira:

- alde batetik, industriak izandako garapena ingurugiroaren narriadura eragin duen arrazoi nagusietako bat izan da,
- bestalde, EAEn enpresa-gaitasun izugarria dagoenez, ingurugiro-mailako arazoei erantzun zabal eman ahal izan zaie, Ekoindustriaren sektore zabal bat sortuz.

Une honetan (1998), EAeko Ekoindustriaren sektoreak 450 enpresa baino gehiago biltzen ditu, eta fakturazioa 200.000 milioi PTA ingurukoa da, alegia, EAeko BPGren ia %4,5.

Aipatu fakturazioaren %70, EAeko mugetatik kanpo egiten da, beraz, EAEn kokatuta egonda ere, merkatu nagusia Autonomia Erkidegoaren mugetatik kanpora dago.

Horrela, Euskal Ekoindustriaren merkatua, zalantzarik gabe, Espainiako Estatuko nagusienetakoa dugu, jarraian azaltzen den grafikoan baieztatu daitekeen bezala.




1. grafikoa. Euskal Ekoindustriak Estatuan duen agerpena.

(1998) Euskal Ekoindustriaren beste zenbait datu, honako hauek dira:

### 1. TAULA. Beste mekatu batzuekiko konparaketa

	EUROPAKO BATASUNA	ESPAINIAKO ESTATUA	E.A.E.
Fakturazioa	140 Miliar EURO	3.200 Milioi EURO	1.190 Milioi EURO
BPG gaineko %	%1,4	%0,7	%4,47
Euroak/Kapita	416,63	69,39	246,06
Zuzeneko enplegua	1.000.000	37.600	6.500

Ingurugiro-arloka, euskal Ekoindustriaren sektoreko enpresen antolamendua honako hau da.



2. grafikoa. Ingurugiro Arloka, Euskal Ekoindustriaren antolamendua.

Euskadiko Ingurugiro-enpresen Katalogoan izena emandako 456 enpresen artetik, %56k hondakinen-arloan jarduten du, eta %46k, berriz, uren arloan, gainontzeko ingurugiro-arloak gaituz.

Ingurugiro-sektoreko ekoizpen-egitura hau, Estatuan eskaintzen denarekin bat dator, baita Europan eskaintzen denarekin ere, izan ere, bai politika bai legeria aurreratuena esparru honetan daude.

Euskal Ekoindustriaren ondorioz azpimarragarriena dugu, esparru honetako enpresa-kopuruaren eta enpresen kalitatearen arabera, merkatuan ondo kokatuta dagoen sektore bat dela, eta nahikoa anitza, Ingurugiroarekiko errespetuarekin bateragarria den garapena lortzeko, oraindik ere izango diren erronkei aurre egiteko prestatuta dagoena.

Zentzu honetan, biztanleriaren kontzientziazioa eta praktikan jartzea, ingurugiro-legeriaren eta merkatuko arau berrien bitartez, kontsumitzaileen interesetan eta bizi-kalitateari dagokionez balore berrietan oinarrituta, bi alderdiak izango dira Euskal Ekoindustriaren garapenerako ardatz eragile, bai enpresa eskatzaileei dagokienez, bai administrazioari dagokienez ere.





# EKOINDUSTRIA



## ZER DA ACLIMA?

ACLIMA, Euskal Herriko Ingurugiroko Cluster Industrien Elkarketa, irabasi–asmorik gabeko enpresa–elkartea da eta bere helburu nagusia Euskal Ekoindustria eta horrekin zerikusia duten industriak sustatu eta hobetzea da, aldi berean ekonomiaren eta enpleguaren garapenaz gain gizarteko arlo guztietan ingurugiro–jarduerako eta ingurugiroa errespetatzeko filosofia bultzatzen delarik.

ACLIMA 1995ean eratu zen, enpresa–talde baten ekimenari esker, Eusko Jaurlaritzaren ekintza estrategikoak sustatuta. ACLIMA Eusko Jaurlaritzaren jarduteko esparru baten barruan kokatzen da, alegia, Lehiakortasun Plana, zeinek helburu bezala euskal industria aukera berrien merkatua izan daitekeen honen, Europako Merkatu Bakarra hain zuzen, buru jartzea duena.

Jada ia lau urteko ibilbidea egin du, eta lau urte horietan, euskal industriaren ingurugiro–erreferente bihurtu da, bere inguruan esparru honetako enpresarik garrantzitsuenak bilduz, eta Ekoindustriaren garapena sustatuz.

Erakundearen barruan HIRU bazkide–mota daude: Ohorezko Bazkideak, Zenbakizko Bazkideak eta Bazkide Lankideak.

Lehenengo multzoan, hots Ohorezko Bazkideen multzoan, honako hauek biltzen dira:

- Eusko Jaurlaritza. Lehiakortasun Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritza. Ingurumen Sailburuordetza.
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- IHOBE Ingurugiro Kudeaketarako Elkarte Publikoa.
- SPRI. Industria Sustapenerako eta Birmoldaketarako Elkarte Publikoa.
- EHU. ITIGET Industri eta Telekomunikazioen Injineruen Goi Eskola Teknikoa.
- Deustuko Unibertsitatea.
- Nafarroako Unibertsitatea.
- EITE. Ikerketa Zentroen Euskal Erakundea.
- Euskal Merkataritza Ganbarak.

Zenbakizko Bazkideen artean honako hauek aurkituko ditugu:

ACB	CINSA EP	M+A+S
ACIDEKA	COINPASA	MOYVEN
ADIRONDACK	CONSORCIO DE AGUAS	NEURTEK
AFESA	DIDIER TÉCNICA	NOVOTEC
ALFUS	EKONOR	ONDOAN
ARUSA	ELMET	OÑEDER
ASER	IBERDROLA	PRICewaterHOUSE
ASFALTOS CAMPEZO	ICG–20–25	REMETAL
AZTI–FUNDACIÓN	IDEMA	RONTEALDE
BORG SERVICE	IDOM	SADER
BYCAM	INDUM. RECYCLING	SENER
CADAGUA	INGELECTRIC TEAM	SICE
CEMENTOS LEMONA	INGURU	SMURFIT NERVIÓN
CEMENTOS REZOLA	INZERGEST	TRADEBE
CESPA GR	LIMIA & MARTIN	ZABALGARBI

Azkenik, Bazkide Lankideak honako hauek dira:

CIDETEC

GRAVER

SANZ & SAIZ


DPA

MIRANDAOLA

ACLIMAKo enpresek, berrogeita hamar guztira, Euskal Herriko Ekoindustriaren sektoreko %11 osatzen dute, lauehun eta berrogeita hamasei enpresa bilduz.


1998 urtean, guztira 1.093.051 Milioi PTako (6.569 Meuro) fakturazioa egin zen, Ingurugiroaren berariazko fakturazioa 68.691 Milioi PTA (412 Meuro) izan zelarik; kopuru horrek, 1996ko datuekiko %50eko gorakada adierazten du, eta Euskal Ekoindustrია guztiaren fakturazioaren ia %35.

Gorakada honek bi arrazoi nagusi izan ditu: lehenengoa, ACLIMAKo enpresen ingurugiro-zerbitzuen gorakada esanguratsua. Bigarrena, bazkide-kopurua areagotu izana, %35 baino gehiago bi urtetan.



3. grafikoa. Euskal Ekoindustrian ACLIMAREN fakturazioaren portzentajea.


ACLIMAKo enpresek Ingurugiroan egindako fakturazioa, EAEko BPGren %1,4 da.



4. grafikoa. Lurralde-esparru bakoitzean, BPGren gaineko Ingurugiro-gastuaren portzentajea.




## EKOINDUSTRIA




Datu horiek aztertuz gero ikus dezakegunez, ACLIMako enpresen Ingurugiroak EAEko BPGren gainean duen eragina, Europako Batasuneko Ingurugiroaren antzekoa da, eta Espainiako Estatukoarena baino dexente handiagoa.

Geografia-esparruka, ingurugiro-fakturazioak jarraian azaltzen den antolamendua du.



5. grafikoa. Geografia-esparruka, ACLIMako enpresen Ingurugiro-fakturazioa.

Ikus daitekeen bezala, fakturazio gehiena Euskadin egiten da, eta Estatuko gainontzeko herrialdeak daude jarraian kokatuta. Nazioarteko fakturazioa, guztizkoaren %23 izatera iristen da. Aipatu kopuruak, EAEko Ingurugiro Klusterrarekin bat datoz, izan ere ACLIMako fakturazioaren %60 Euskal Herritik kanpo sortzen da, Euskal Ekoindustriaren %70en parean.



6. grafikoa. ACLIMaren egitura, fakturazio-tarteen arabera.


ACLIMako enpresa bazkide gehienak, 10.000 milioi baino gehiagoko fakturazioa duten enpresa-multzoan sartzen dira. Edonola izanda ere, daturik interesgarriena, Erakundea osatzen duten enpresen artean, fakturazioaren arabera banaketa orekatua egiten dela da.

Langile-kopuruaren arabera, enpresak jarraian azaltzen den bezala xehatu daitezke:

## 2. TAULA. Enplegatuen arabera, enpresa-kopurua.

ENPLEGATU-KOPURUA	ENPRESA-KOPURUA
0<50	23
>=50<100	8
>=100<200	5
>=200<500	9
>500	5

Taulan baieztatu daitezkeenez, ACLIMako enpresa gehienek, %45 hain zuzen, 50 langile baino gutxiago dituzte. Hala ere, ACLIMA Elkartearen osatzen duten enpresak ez daude, oro har euskal Ekoindustriako enpresak bezain atomizatuak, izan ere, euskal Ekoindustriako enpresen %85, 50 langile baino gutxiago ditu.



7. grafikoa. EAEn eta ACLIMAn fakturazioa/enpresa



ACLIMako enpresen Ingurugiro-fakturazioak, euskal ekoindustriaren guztizkoaren %34 biltzen du; horrez gain, enpresa bakoitzagatik fakturazio-ratioa ere azpimarragarria da, alegia, ACLIMARI dagokionez 1373 milioi izatera iristen da, eta EAeko enpresei dagokionez, berriz, 485 milioi.

ACLIMako enpresentzako lanean ari den lagun-kopurua 20.593 da; horietan 2200 zuzenean ari dira Ingurugiroaren esparruko gaietan lanean.

Ingurugiroari dagokionez, enpresen sektore edo negozio-mota desberdinei dagokienez, jarraian azaltzen dugu ACLIMaren egitura.




## EKOINDUSTRIA



8. grafikoa. Fakturazioa sektorea.

Jarduera-sektoreen arabera fakturazioa aztertuz gero, Kudeatzaileen sektorea da buruan dagoena, eta aldi berean, Kudeatzaileen, Guztia prest zerbitzuaren eta Birziklapenaren arloen artean, eta Aholkularitzaren Ekipoen eta Ingeniaritzaren arloen artean dikotomia argi bat dago, zeintzuk gainontzekoekin konparatuz, %90eko fakturazioa duten. Horren arrazoa da, sektore aurrerakoienetan dauden enpresak, enpresa handiak, sendotuak direnak, ekoizpenarekin eta azpiegituren lan handiekin erlazionatuta daudela.


Ingurugiro-arloen edo -esparruen garrantzia, ondorengo grafikoa ikus daiteke:



9. grafikoa. Ingurugiro-arloa fakturazioa.

Fakturazioaren arabera, Hondakinaren eta Uren ingurugiro-arloen artean menpekotasuna ikus dezakegu; biak daude lehen aipatu ditugun negozioekin (Kudeatzailea, Guztia prest eta Birziklapena, hain zuzen), estuki erlazionatuta.

Bestalde, ACLIMAKo enpresak gero eta kontzientziatuago daude eta laguntzeko prest, beraz, enpresen kudeaketa eraginkorragoa egin nahi dute eta aldi berean, ingurugiro-estandarrak bete.



10. grafikoa. ISO9000 eta ISO 14000 ziurtagiria lortu duen edo tramitatzen ari den enpresa-kopurua.

Hemendik gutxira, ACLIMako enpresen %60k ISO9000 Kalitatearen ziurtagiria, eta %30ak, berriz, ISO 14000 Ingurugiro ziurtagiria lortuko dute.

2005 urterako, ACLIMako enpresa guztiek lortu beharko dute Ingurugiroa Kudeatzeko Sistema baten ziurtagiria.

Amaitzeko, ACLIMako enpresek osatzen dute Euskal Ekoindustria guztiaren zati garrantzitsu bat (enpresen %11, baina fakturazioaren %34), eta helburu nagusizat Euskadiko Ingurugiro-baldintzak hobetzea, eta aldi berean gero eta indartsuago dagoen industria-sektore hau sustatzea eta dinamizatzea dute; eta hori EAEko industria-esparruaren barruan, garatzeko aukera paregabea dugu.

## @ 3. eranskina: INGURUGIROAREN KUDEAKETA



### ASEREN INGURUGIROAREN KUDEAKETARI DAGOKIONEZ, ESPERIENTZIA PRAKTIKOA

#### ENPRESAREN PROFILA

SORRERA: 1985

ERAGIKETEN HASIERA: 1987ko maiatzak 1

GIZARTE-XEDEA: *altzairutegien hautsen tratamendua eta burdina ez diren metalen galdaketa, eta Waeltz Labean trata daitezkeen eta zinka duten beste zenbait hondakin.*

EKOIZPEN-PLANTA: 21.650 m<sup>2</sup>ko lursaila.

KOKAPENA: *Bilborako errepidea -Plentzia, 21  
Asua-Erandio*

PLANTILLA: 45 lagun (4 I+G bezala lanean).

1995/1996 EKITALDIKO FAKTURAZIOA: 2.600 milioi pezeta.

ESPORTAZIO-ZIFRAEKOIZTUTAKO: *Waelz oxido guztia.*

INDUSTRIA-PROZESUAL: *Murrizketa/oxidazio pirometalurgikoa, errotazio-labean, luzeran 50 m eta 3,50 m-ko diametroa.*

TRATAMENDU-GAITASUNA: 80.000 tona hondakin /urteko.

LEHENGAI OSAGARRIAK: 12.000 tona hondar /urteko.

25.000 tona koke /urteko.

EKOIZPEN-GAITASUNA: 30.000 tona Waelz oxido garbitua /urteko.

60.000 tona Ferrosita, zepa geldoko oinarria  
duena /urteko

Ingurugiroaren eta ingurugiroaren babesa ASERen kulturaren zati dira hastapenetatik, izan ere ASERen oinarrian aurkituko ditugun bi alderdi dira; alegia, zenbait barne-elementuk euskarri sendoa eskaintzen diote, eta beste zenbait kanpo-elementu dinamizatzailerik, bizirik mantentzen dute, hobetzeko eta une honetako korrante desberdinetara egokitze berezko prozesu baten barruan, hartara ekimenik eta lehiakortasunik ez galtzeko.

Enpresaren ingurugiro-politika jasaten duten elementuen artean, honako hauek aurki ditzaizkegu:

- ingurugiroa erabateko kalitatearen zati delaren uste osoa, beraz, ingurugiroaren kudeaketa enpresaren kudeaketa osoaren zati bat da;
- elkartearen jarduera nagusiaren izaera bera, hondakin batzuen tratamendua hain zuzen, arriskutsutzat sailkatzen da Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen 20/1986 Oinarrizko Legean, metal astunei dagokienez duen edukiagatik.

1990eko otsailan, 833/1988 Dekretua indarrean sartu zen; Dekretu honek Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen 20/1986 Oinarrizko Legearen Araudia onesten du, baina aipatu Dekretua indarrean sartu baino zazpi hilabete lehenago, jada ASERek kudeaketarako bai-mena eskatu zuen, eta 1990 urtean bertan eman zioten, PV/2/1-90 zenbakiarekin.

#### 1. IKS BAT EZARRI BAINO LEHEN, HARTU BEHARREKO ERABAKIAK

Kudeaketarako sistema bat ezartzeko prozesuari ekin baino lehen, ezarpen-esparrua edozein izanda ere (Kalitatea, Ingurugiroa, beste zenbait), enpresaren Zuzendaritzak, argi

izan behar du, kontzientziatuta egon behar du, aipatu ezarpenak berarekin dakartzan aha-legina, etekinak, jarduerak, kostua eta bestelako eskakizunak onartzeko. Hori guztia onartu ezean, kudeaketarako sistemaren ezarpenak porrot egingo du.

Enpresaren Zuzendaritzak, bere kudeaketarako sistemaren ezaugarriak eta eragina definitu behar ditu. Xede horrekin, ASERek Lloyd's Register aholkularitzaren laguntza izan zuen, horretarako jardunaldiak antolatuz, non zuzendaritzako eta tarteko agintaritzetako lagun guztiek parte hartu zuten, eta bertan argitu zituzten IKS baten ezaugarriak eta hedapena definitu ahal izateko zalantza guztiak.

Jardunaldien ondoren, ASEReko buruek, lehenengo etapa bezala IKS puru bat ezartzea erabaki zuten, hau da, kudeaketa sistema bera dena hartu, kanpo-jarduerak at utziz, hala nola ingurugiro-deklarazioa edo ingurugiro-egiaztapena. Urrats horiek, sistema ezarri eta ziurtatu ondoren emango ziren.

Horrexegatik, aukera desberdinak aztertu ondoren, IKSri ekitea erabaki zen, BS7750 arauari jarraiki, eta ISO 14001 araua onetsi bitartean, jada errealitatetzat jotzen zena. Aldi berean, kanpo-erakunde bat kontratatzea erabaki zen, ezarpen-proiektuari dagokionez, prestakuntza, aholkularitza eta jarraipena egiteko, eta ondoren, 2 urteko epean, sistema ziurtatzeko.

Hurrengo etapa, eta ziurtatu ondoren, 1836/93 Europako Araudia, EMAS izenez ezagutzen dena, betetzeko aurrera jotzeko aukera aztertzea zen.

## 2. SISTEMA EZARTZEKO METODOLOGIA

ASERen IKS ezartzeko metodologiari dagokionez, lanerako bost multzo handi bereizi dira:

1. IKS ezartzeko oinarriak.
2. Hasierako ingurugiro-azterketa.
3. Egitura: alderdiak – helburuak – ingurugiro-programak.
4. Lanaren kontrola.
5. Beste kudeaketa-arau batzuen antzeko prozedurak eta jarduerak.

### IKS ezartzeko oinarriak

Lehenengo multzoa, enpresaren Zuzendaritzak egin beharrekoari buruzkoa da, alegia, IKS ezartzen hasiko deneko oinarriak definitzea, hau da:

#### A.- ZUZENDARITZA ORDEZKATUKO DUTEN PERTSONAK IZANDATZEA ETA HORIEN ERANTZUKIZUNAK ZEHAZTEA.

Multzo honetako lagunek, jarraian aipatzen diren ezaugarriak dituen profila osatu behar dute:

- enpresaren egituraren barruan, erantzukizun handiko postu bat betetzea, hartara berak hartzen dituen erabakiak eta egiten dituen eskariak langile guztiek kontuan hartzeko,
- ingurugiroarekiko kontzientziatuta dagoen pertsona bat izatea, objektiboa, batez ere enpresako ingurugiro-alderdiei eta –praktikei dagokienez, eta koordinaziorako dohainak dituen.

Beste ideia interesgarri bat izan daiteke, Zuzendaritza ordezkatzeko aukeratu den laguna txandakatzea, horrela lagun gehiago IKS batean nahastea, ezagutzea eta parte hartzea lortzen baita.

ASERen, Zuzendaritza ordezkatzeko duen laguna, une honetan I +K eta Kalitatearen Zuzendaria da.





## INGURUGIROAREN KUDEAKETA



### B.- INGURUGIRO-ERABAKIAK HARTZEKO PROZEDURA ETA PERTSONA ARDURADUNAK AUKERATZEA

